

ERRIA

ERALDAKETARAKO ALDIZKARI POLITIKOA



14.
zenbakia
2025eko maiatza
erria.eus

ERRIA 14. zenbakia

Azaleko ilustrazioa:

Oier Zuñiga

Argitaratzailea:

Iratzar Fundazioa

Erredakzioa:

Itziar Amunategi

Maialen Arteaga

Gotzon Elizburu

Andoni Olariaga

Izaro Zinkunegi

Argazkiak:

Foku

Diseinua eta maketazioa:

Grafik

Ilustrazioak:

Oier Zuñiga

Egoitza:

Zuatzu enpresa parkea,

Easo eraikina 4, behea.

20018 Donostia

tlfnoa: 943 265982

www.eria.eus

eria@eria.eus

Facebook: **www.facebook.com/eria.aldizkaria**

Telegram: **ERRIA**

Instagram: **@eria_aldizkaria**

Mastodon: **@eria**

Erria aldizkaria Iratzar Fundazioarena

eta Sorturena da.

Lege gordailua:

SS-0033-2018

Jabego lizentzia:

CC BY-SA

Babeslea:



“Politika guztion zorientasunaren aldeko borroka da”

Pepe Mujica





«Begikoa nuen banderari,
burua eraldatu behar» Oier Zuñiga

- 06 EDITORIALA
- 08 TXIO-TXIOKA 2025
- 12 ERRIAK EZ DU BARKATUKO

GUK,
UTOPIKOOK,
EKARRIKO DUGU
HERRI HONEN
ASKATASUNA

- 18 **ELKARRIZKETA** “Etorkizuneko gizarte desiragarri asko politikoak dira, egingarriak” Alba Garmendia Castaños
- 26 **KONTAKIZUNA** Ezin dugu jakin Maddi Ane Txoperena Iribarren

INDEPENDENTZIARA,
EZKER
ABERTZALEAREN
PROPOSAMEN
TAKTIKOEN
GENEALOGIA

- 34 **ERREPORTAJEA** Independentziaranzko bidea eta geltokiak Rafa Diez Usabiaga eta Eugenio Etxebeste Arizkuren
- 42 **INFOGRAFIA** Reconocimiento nacional, territorialidad y autodeterminación como ejes Erria
- 44 **ERREPORTAJEA** Burujabetza prozesuak Frantziar Estatuan; bidaia bat itsasoz gaindiko lurraldeetatik metropolira Erria

HERRI ZAHARRA
ASKATU,
MUNDU BERRI BAT
ERAIKITZEKO

- 56 **ERREPORTAJEA** XXI. mendeko euskal internazionalismoa: prismatiko berriak, paradigma berrien zerbitzura Erria
- 64 **SINADURA** Mundua sutan dago, eta gu herri ukatu eta txiki bat gara Igor Zulaika

NAZIONALISMO
HUTSALAREN
FUNTZIOA NAZIO
ERAIKUNTZARAKO

- 68 **ARTIKULUA** Euskal Herria estatuen nazionalismo banalaren aurrean Jon Fernandez
- 72 **ERREPORTAJEA** Nacionalismo banal ¿Por qué es tan importante? ¿Qué función tiene en la construcción nacional de un pueblo? Erria
- 76 **SINADURA** Kirol herri bat askatasunerantz Ane Urkiri

- 80 APORIA
- 82 KOMIKIA
- 86 GOMENDIOAK

Euskal askapen prozesua eta mugimendua mundu garaikidean

1975a urte garrantzitsua da Euskal Herriaren historian. Bi polotan ardaztutako mundu hartan gertatzen ari ziren askapen prozesu eta iraultzen abaroan, gure herria bizi gogoz borrokan ari zen espainiar eta frantziar zapalkuntzaren aurka. Francoren 40 urteko diktadura gogorraren azken arnasak izan ziren urte hartan. Akabatuz hil zen diktadorea ohean. Txiki eta Otaegi fusilatu zizkiguten Guardia Zibil pelotoi boluntarioek. Diktadurak ondo lotuta utzi zuen bere ondorengotza, Espainiaren batasuna bermatzeko helburuarekin. Haustura demokratikoa ala erreforma, hortxe bidegurutzea.

Faxistak gauetik egunera demokrata bilakatu ziren. Estatu aparatuetan ez zen hausturarik gertatu. Eliteen arteko paktu bat izan zen *espainiar trantsizio* deitua, oligarkia kapitalistaren interesak babesteko eta Espainiaren batasuna bermatzeko.

50 urte ez dira alferrik igaro. Ezker abertzaleak, zumeak nola, bere helburuei eutsi die sendotasunez, baina egoera bakoitzera egokitzeko behar besteko malgutasuna erakutsiz. Askatzera Lotuak, komunitate honek Txiki eta Otaegi hil zituzten helburu berberen alde borrokan segitzeko konpromisoari eusten dio.

Nazioartean zein Euskal Herrian egiturazko zapalkuntzek hor diraute, baina testuingurua asko aldatu da. Bi polotako mundua erori zen, neoliberalismoak garaipenaren kortxoa zabaldu zuen aparretan; eta orain, mundu multipolar baterantz ei goazen honetan, lehia gordintzen ari da. Euskal Herrian, lurralde zatiketa iraunkortuko zuten erabaki politikoak hartu zituzten, prozesu konstituzional eta estatutarioen bidez. Minimo demokratikoak eskuratu eta gatazka politikoa konpontzeko saiakera ugari egin dira urte hauetan guztietan. Gaur, gure herriaren burujabetza mailan jauzi bat aurrera egiteko saiakera betean murgilduta dago askapen mugimendua.

Aldaketa horiek ditugu hizpide Erria aldizkariaren 14. zenbaki honetan. XXI. mendearen lehen laurdena igarota, hurrengo hamarkadei begira egokitu beharra dauka askapen prozesuak eta mugimenduak. Nola irudikatu ditzakegu etorkizun desiragarriak? Zer nolako internazionalismoa jorratu behar dugu? 50 urteotan metatu dugun esperientzia kontuan izanda, zer nolako proposamenak eta estrategiak behar ditugu gure herriaren independentziarako bidean aurrera egiteko? Naziotasun sentimenduak indartzeko zer nolako estrategiak baliatu beharko genituzke?

Galdera handiak dira, eta erantzunak, seguruenik, partzialak oso. Ez da gure helburua erantzun borobilak ematea, baina dossier hauek gogoetarako pista batzuk ematen dituztela uste dugu. Frankismoak Euskal Herriari herio kolpea eman nahi izan zionetik 50 urte pasatuta, bizi-bizirik gaude-eta.

El proceso y el movimiento de liberación vasco en el mundo contemporáneo

1975 fue un año importante en la historia de Euskal Herria. En medio de los procesos de liberación y de las revoluciones que se estaban gestando en aquel mundo focalizado en dos polos, nuestro pueblo luchaba con afán de vida contra la opresión española y francesa. Corresponden a aquel año los últimos coletazos de los 40 años de la cruel dictadura franquista. El dictador murió matando en la cama. Txiki y Otaegi fueron fusilados por pelotones voluntarios de la Guardia Civil. La dictadura dejó atada y bien atada su sucesión, con el objetivo de garantizar la unidad de España. La ruptura democrática o la reforma, he ahí la encrucijada.

Los fascistas se convirtieron de la noche a la mañana en demócratas. En los aparatos de Estado no se produjo ninguna ruptura. La llamada transición española fue un pacto entre élites para proteger los intereses de la oligarquía capitalista y garantizar la unidad de España.

50 años no han pasado en balde. La izquierda abertzale, cual mimbre, se ha mantenido en sus objetivos con firmeza, pero mostrando la flexibilidad suficiente para adaptarse a cada situación. Comprometidas y comprometidos con la libertad, Askatzera Lotuak, esta comunidad se reafirma en el compromiso de seguir luchando por los mismos objetivos por los que dieron su vida Txiki y Otaegi.

Las opresiones estructurales persisten, siguen ahí, tanto a nivel internacional como en Euskal Herria, pero el contexto ha cambiado mucho. El mundo de dos polos sucumbió bajo la espuma de la victoria descorchada por el neoliberalismo; y ahora que dicen que nos dirigimos hacia un mundo multipolar, la competencia es cada vez más cruda. En Euskal Herria, se tomaron decisiones políticas que sostuvieron la división territorial a través de procesos constitucionales y estatutarios. Durante todos estos años se han realizado numerosos intentos de consensuar unos mínimos democráticos y resolver el conflicto político. Hoy, el movimiento de liberación está inmerso en el intento de dar un salto adelante en el nivel de soberanía de nuestro pueblo.

Estos cambios son el tema que tratamos en este número 14 de la revista Erria. Transcurrido el primer cuarto del siglo XXI, el proceso y el movimiento de liberación deben adaptarse de cara a las próximas décadas. ¿Cómo imaginamos los futuros deseables? ¿Qué tipo de internacionalismo debemos abordar? Teniendo en cuenta la experiencia que hemos acumulado en estos 50 años, ¿qué propuestas y estrategias necesitamos para avanzar hacia la independencia de nuestro país? ¿Qué tipo de estrategias deberíamos utilizar para reforzar los sentimientos de pertenencia a nuestra nación?

Son preguntas importantes, y las respuestas serán, probablemente, muy parciales. No pretendemos que nuestras respuestas sean rotundas, categóricas, pero creemos que en estos dossieres se ofrece alguna pista para la reflexión. Y, es que, transcurridos 50 años desde que el franquismo quiso asestar el golpe mortal a Euskal Herria, seguimos vivos/os y coleando.

Le processus et le mouvement de libération basque dans le monde contemporain

1975 a été une année importante dans l’histoire du Pays Basque. Au milieu des processus de libération et des révolutions qui couvaient dans ce monde focalisé sur deux pôles, notre peuple luttait avec une soif de vie contre l’oppression espagnole et française. Les derniers revers des 40 années de la cruelle dictature franquiste remontent à cette année-là. Le dictateur est mort dans son lit en entraînant d’autres avec lui. Txiki et Otaegi ont été fusillés par des pelotons volontaires de la Garde civile. La dictature a laissé sa succession « ficelée et bien ficelée » dans le but de garantir l’unité de l’Espagne. La rupture démocratique ou la réforme, voilà la croisée des chemins.

Les fascistes sont devenus du jour au lendemain des démocrates. Aucune rupture ne s’est produite dans les appareils de l’État. La dénommée transition espagnole était un pacte entre élites pour protéger les intérêts de l’oligarchie capitaliste et garantir l’unité de l’Espagne.

50 ans ne sont pas passés en vain. La gauche abertzale, tel un rotin, a poursuivi ses objectifs avec détermination, mais en faisant preuve de la flexibilité suffisante pour s’adapter à chaque situation. Engagées et engagés pour la liberté, Askatzera Lotuak, cette communauté réaffirme son engagement de continuer à lutter pour les mêmes objectifs pour lesquels Txiki et Otaegi ont sacrifié leur vie.

Les oppressions structurelles persistent, sont encore là, tant au niveau international qu’au Pays Basque, mais le contexte a fortement changé. Le monde des deux pôles a succombé à l’écume de la victoire déclenchée par le néolibéralisme ; et maintenant il paraît que nous nous dirigeons vers un monde multipolaire, la concurrence est de plus en plus rude. Au Pays Basque, il a été pris des décisions politiques qui ont soutenu la division territoriale à travers des processus constitutionnels et statutaires. Durant toutes ces années, de nombreuses tentatives ont eu lieu pour s’entendre sur des minima démocratiques et résoudre le conflit politique. Aujourd’hui, le mouvement de libération est engagé dans la tentative de faire un pas en avant au niveau de la souveraineté de notre peuple.

Ces changements sont la question que nous abordons dans ce numéro 14 de la revue Erria. Passé le premier quart du XXle siècle, le processus et le mouvement de libération doivent s’adapter pour les décennies à venir. Comment imaginons-nous les futurs souhaitables ? Quel type d’internationalisme devons-nous aborder ? Compte tenu de l’expérience que nous avons acquise ces 50 dernières années, de quelles propositions et stratégies avons-nous besoin pour avancer vers l’indépendance de notre pays ? Quel type de stratégies devrions-nous utiliser pour renforcer les sentiments d’appartenance à notre nation ?


Ce sont des questions importantes, et les réponses seront probablement très partielles. Nous ne prétendons pas que nos réponses soient claires, catégoriques, mais nous pensons que ces dossiers offrent une piste pour la réflexion. En effet, 50 ans après que le franquisme a voulu asséner le coup de grâce au Pays Basque, nous sommes toujours vivant[e]s et en pleine forme.

ERRIA 14 2025/05 9

Gutarrak

Sortu @sortueh.bsky.social · 57 s
Doluminik sentikorra bidaltzen diegu Euskal Herriatik Lucia Topolansky bidelagun eta emazteari, MLN-Tupamaros mugimenduari, MPPko kideei eta Frente Amplioko lagunei.

#PepeMujica ren legatua luzaz izango dugu gure artean. Gauza ederrak egingo ditugu elkarrekin. Adiorik ez, lagun.



Ernai @ernaigazte
Hemen gaude eta Ernai gara! 🥰
Badago alternatiba, eta honek, Euskal Herri aske, sozialista eta feminista du izena.

Beraz, ekin eta bultza Euskal Herria askatzera!

Gazteon eskutik #independentziara



naiz: @naiz_info

Egun on!
Martxoak 18 ditu, asteartea da
Hau da Gara egunkariak aurkeztuko duen azala:
naiz.eus/es/hemeroteca/...



Euskalerrria Irratia @fm983irratia

Torturaren bost biktima gehiago, ofizialki aitortuak

Motibazio politikoko biktima izan dira Aitortza eta Erreparazio batzordearen arabera ere Floren Beraza, Txaro Buñuel, Cecilio Ruiz, Patricia Perales eta Izaskun Juarez. Guztiak torturen biktima dira.



Egiari Zor Fundazioa @EgiariZor

Ofizialki aitortu da Rosa Zarraren heriotza eragin zuela Ertzainek jaurtitako pilotakada batek. Ordungo Barne sailburuaren hitzak nola ahaztu. Familia honen borroka ere aipatzekoa, Rosari egin ziotenaren egia ezartzeko. Besarkada bat, Xabier, Maider, Dani eta gainontzekoei.



naiz: @naiz_info

Victimas, frente al desfile de la Guardia Civil en Gasteiz: «Ojalá podamos olvidar que en sus manos deseamos morir».

@ibaiazparren ha estado en el acto que ha tenido lugar en Artium

naiz.eus/eu/info/notici...



Gorka Elejabarrieta Díaz @g_elejabarrieta

Agur eta Ohore Pepe

Siempre en nuestra memoria, en nuestros corazones.

Hasta la victoria 🍷



[Barrez] lehertu

guillermo_martorell



guillermo_martorell Sorpresa en el Vaticano ✨ ✨ ✨ El candidato del PNV, Jonan Fernández, pasa a cuartos de final del cónclave. La jugada revisada por el VAR sigue generando dudas, pero Jonan ya está en cuartos.

mescoprime

...EL CAFÉ QUITA EL SUEÑO.
...LA LECHE DA SUEÑO.

-YO DESPUÉS DE TOMAR CAFÉ CON LECHE



Doctor Dientes @ELDoctorDientes



sangeziou Paul Drew - Hinoki Wood (Die Margaret Cover)



Suso De Toro @SusodeToro1

- Usted de donde es?
- De aquí
- Gallega?
- Y española
- Hace mucho?
- 50 años
- Y por que protesta?
- Porque nos imponen el gallego
- Usted habla gallego?
- No
- Después de 50 años de imposición?

Aitzol Belasko @aitzolin07

Arratsaldeon @ninaizane #BazkalOstekoTxorradatxuk

Translate post

Alejandro. / Acercandro




Idoia Torregarai @bootbo

Berriro astelehena?!

Translate post



Me returning to work after my vacation



lamargeitor Pésimo Servicio

Terapeuta : "la única persona que puede darte tranquilidad en estos momentos..."

Yo: (Que no sea yo por favor)

Terapeuta : "eres tú"



ERRIAK EZ DU BARKATUKO

EL CORREO

Los hábitos de los vascos castigan al sistema sanitario

El Gobierno advierte de que el abuso del alcohol, el tabaco y las dietas insanas son también factores que tensionan

PANDEMIAN EDERKI IKASI GENUEN
 HERRITARRENTZAT KALTEGARRI IZAN
 DAITHEKEEN ORO, HERRITARRON ERRUA DELA.
 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EZ DUTELA
 BEHAR BEZALAKO PLANIFIKAZIORIK
 EGIN BEHAR BEZALAKO ZERBITZUAK
 ESKAINTZEKO? AZKEN URTEETAN
 OSASUN SISTEMA PUBLIKOAN EGINDAKO
 INBERTSIOA MURRITZTU DELA? BERDIN DIO,
 ZURE ERRUA DA, HISTERIKO ALAENA.

ABC

**VIVIMOS
COMO SUIZOS**

ROSA
BELMONTE

Yo te daré

Ahora que se van a sustituir las balas de goma por materiales menos lesivos, podrían usar palomitas

Me han contado, y si no es verdad debería serlo, que uno de los títulos que se barajaron para el programa de Broncano era 'Con el dinero de todos'. La presentación: «Hoy ha venido con el dinero de todos, fulanito». Es tan gracioso que RTVE no lo habría aceptado. Lo que se acepta suele explicarse por la ventana de Overton o por la desfachatez.

Un policía nacional pidió al ministro de Interior, Grande-Martin, una ley para aumentar la seguridad, una ley de la Guardia Civil. ¿Ocurrió en la gala de los Premios de la Fundación del Día de la Policía, de los actos del día 12 de la Policía, «Demos cámaras corporales y verán cómo nos destrozán». Pero el Gobierno del que forma parte Mariategui se niega a esos planes. Ante la demanda de las cuatro secciones, las exigencias de EH Bildu y ERC para reformar la Ley de Seguridad Ciudadana. Muy ufana se veía ayer a Mertzitz Aizpuru. Porque el pacto lo explicó Bildu. «El pacto de goma con la Mariategui se había de poner para prohibir el uso de pelotas de goma como material antidisturbios, las devoluciones en caliente y a suavizar las sanciones por faltas de respeto a la autoridad y de cobardía. Pues todos los puntos del texto firmado por el PSOE, Sumar, ERC, Bildu y EH no se ha matizado. Aunque a Aitor Esteban no le gusta el cambio de grave a leve en los actos de desobediencia. «Nos reservamos el derecho a presentar enmiendas». «No es un pacto, pero por distintos motivos», dijo Pablo Ferraz. Podemos, al que le parece una «reforma estética insuficiente». También fan el resultado a las enmiendas. El texto dice que se «sustituirá progresivamente a cinco de los proyectos de cine de los eliminados por una forma por otros menos lesivos». Que usan palabras.

Ha contado Ana Belén que después de las elecciones del 82 y la debacle del PCE, muchos decidieron suspender su militancia. Carrillo dijo a Cristina Almeida que se habían pasado de la raya. Almeida le replicó: «Como la raya la pones tú, la correos un poco y ya estás». Hoy la raya la pone el Gobierno donde la necesite. Si el PSOE cambia de nombre se puede llamar Te Daré Lo Que Me Pidas.

JAKINA DA POLIZIA DELA ESPAINIAREN BATASUNAREN BERME ETA
KONSPIRAZIO INDEPENDENTISTA ETA KOMUNISTAREN AURKAKO
TRESNA. GOMAZKO PILOTAK DEBEKATZEA ADOSTEN DUTE
ESPAINIAKO GOBERNUAK ETA EH BILDUK. ZENBAT BEGI LEHERTU
DITUZTEN, ZENBAT SUDUR TXIKITU, ZENBAT PERTSONA HIL
(GOGORATU ROSA ZARRA ETA IÑIGO CABACAS, BESTEAK BESTE).
EZ ZAIE AXOLA, POLIZIA EZKUTUEN ATZEAN EUREK DAUDELAKO.
ETA MORAL BIKOITZA DUTELAKO.

ABC

INDULTOS ENCAPUCHADOS A ETA

El PP debe someter su error a una seria autocrítica de procedimientos y personas, sin que esto desvíe la responsabilidad del Gobierno por sus pactos con Bildu

El Gobierno está en deuda con EH Bildu y cumple puntualmente con las exigencias de Arnaldo Otegi, que se resume en dos: abandonar políticamente a la izquierda y batusana y poner en la cárcel a los etarras. Así lo ha entendido muy bien quemando etarras y otros etarras en prisión. Que tiene en Otegi a su aliado más fiel y discreto, aunque sin irreflexión, aquello de «presos por su fealdad» es un discurso de excarcelación, «comprensiones penitenciarias». Los hechos apuntan al candidato bildu etarras no recordará, al volver pasado de la izquierda batusana y finalmente ciudadana al dictado de las francesas aterrorizadas por las penas impuestas por el Tribunal de la tierra de la agenda dura en España. Este dictado de hecho ante el terrorismo. EH Bildu el atentado del Esplanada - pactado por el cumplimiento de los reclamos de Otegi - y la modificación de la Ley Orgánica 2/2014, esto solo permite la modificación de la Ley Orgánica 2/2014, esto por Francia y España terroristas con la Ley Orgánica 2/2014, esto por el Tribunal Supremo. El 5 de agosto de 2010, tal y como el Tribunal de la tierra de la agenda dura en España, esto por el Gobierno con un pasado republicano que es un ejemplo de la manera que las condiciones que elimina esa ley batusana.

das de las impuestas por los tribunales españoles. La consecuencia práctica, por ejemplo, es que Francisco Javier García Gasteo, Txapote, sería puesto inmediatamente en libertad. Y lo mismo sucedería con otra decena de terroristas.

[illegible]

EGUNDOKOA DA ESALDIA. ETA, ENKAPUTXATUAK, AZPIJOKOAK, BEHARREZKOAK DITUZTEN MARKO GUZTIAK AKTIBATZEN DITU. BARREGARRIA LITZATEKE, HORREN LARRIA EZ BALITZ HAIN JUSTU ESPAINIAR (IN)JUSTIZIAK EGINDAKO TRIKIMAILUA, EUSKAL PRESO POLITIKOEN ESPETXE ZIGORRAK ARTIFIZIALKI LUZATZEKO. MENDEKU GOSEAK ITSUTZEN DITU.

EL PAÍS

Primera Edición
Fundado en 1876
por D. Juan B. de
Castro y Arce

EL PAÍS

El periódico de la cultura

Edición de hoy
viernes 26 de mayo de 2011
11 euros

Feminismo 80 años del despertar que ha transformado España

Europa se prepara ya para un escenario de guerra

La UE fortalecerá su capacidad de defensa con más armamento e intervención ante la amenaza de Vladimir Putin y llama a la población a mentalizarse de que un conflicto no es imposible

[illegible]

EE UU lanza por primera vez ayuda a Gaza desde el inicio de la guerra

LA CULTURA CIVILE
Roma
Un'idea di una democrazia fondata per gli anni Settanta è la base della manifestazione "Anima Italia". Per la prima volta, infatti, una mostra è organizzata in dieci fasi che ogni italiano seguirà in ordine cronologico e che si chiuderà con una grande manifestazione per la pace in un'area di guerra.

Los entresijos de la trama que golpea al Ejecutivo *—por Juan Carlos Rodríguez Cordero—*

El Huevo se resigna a ser la puerta de atrás de Europa - por J. J. G.

ISRAEL KRIMINAL BATEN GISAN AGERI
DA MUNDVAREN BEGIETARA GAZAN
EGITEN ARI DEN GENOZIDIOAREKIN.
BAINA STATU QUOAREN LOSINTXARIEK
EDOZEIN AUKERA BALIATU NAHI
IZATEN DUTE EUREN NAGUSTIAREN
IRUDIA SALBATZEKO. NORK ZIGORTZEN
DU NOR? AUTORITARIOAK, GAIZTOAK
ONA. ISRAEL DA ONA, BERE BURUA
DEFENDATZEN ARI DELA. INGURUKOAK
GAIZTOAK.

• Entre guirres se gana nada, pierde todo. Miguel Delibes

EL MUNDO

GRAN MADRID Madrid, centro de mando del Mundial 2030 con la sede de medios en la Casa de Campo

A night photograph of a city skyline, likely Mexico City, with a large meteor streaking across the dark sky above the buildings. The city lights are visible in the foreground, and the meteor's bright trail is the central focus of the image.

EL MAYOR ATAQUE DE LOS ARABES

Irán fustiga a Israel con un ataque masivo y desata la guerra regional

Reherán golpea las ciudades israelíes con proyectiles balísticos y un atentado en el Ariv provoca siete muertos

GILBERT ACHCAR «Tras el 7-0, Elzabalé se quedó atrapado en una trampa»

**Begoña Gómez impulsa
un otro máster en plena
investigación judicial**

...orum acoge el acto sobre captación de
...idos para ONG / La UCM cierra el otro máster
«perjudicar su imagen» **PER MARGA ALICENTIA** **PÁG. 72**

12 ERRIA 14 2025/05

ERRIA 14 2025/05 13

ERRIAK EZ DU BARKATUKO

EL CORREO

Contradicción insalvable

RAMÓN JAUREGUI

¿Es razonable pensar en la independencia? ¿Tiene sentido que el partido en ascenso electoral en Euskadi tenga un proyecto tan anacrónico como irracional?

La alumnada sujeta portadora del nacionalismo (PNV-Bildu) que expresa la ciudadanía vasca en las elecciones autonómicas se llama una vinculación ideológica incontestable. En verdad que las elecciones generaron dibujos en el escenario más atrevido, lo que refuerza mucho esa pazos nacionalista. Recordemos: la masa de PNV y Bildu, o sea, 54 escaños de 75 en el Parlamento vasco y un 48% de los votos en las elecciones autonómicas de 2024, pero en estos últimos parámetros no encaja un 40% de los votos en las generales de 2023, con el PSOE como primera fuerza con el 32%.



JOSE MARINELA

de autoconciencia que viene de fuera de nuestra pequeña idiosincrasia. Afortunadamente, la contradicción ideológica que hemos en tiempos recientes ha desaparecido. Nuestro debate político interno, incluido el que surge de nuestro Parlamento vasco, podría ser la discusión sobre que resulta incoherente y hasta ante la gravedad de los retos europeos, en un mundo cada vez más hostil y cada vez más competitivo con nuestros intereses.

Todas las días emprendemos por las grandes decisiones empresariales, por las pérdidas de centros de poder y de intereses económicos y tecnológicos que nos ajenan a los vascos. Ha manera facilísima de ser grandes en las labores de pazos, porque las relaciones, las posibilidades de crecimiento y las aspiraciones de nuestros ilustres en Euzkadi hacia el futuro se ven afectadas por la gravedad de las compañías. Las decisiones que derivamos el bienestar económico de las empresas —la financiación, el coste

de la energía, la normativa del mercado interior— sitúan nuestro entramado económico bajo dependencias nacionales o europeas como irrazional. Todo el debate sobre la autonomía estratégica, el que afecta a las cadenas de suministro, al transporte internacional, a los materiales críticos, al suministro de bienes esenciales, a las condiciones del mercado internacional (tasas y gravámenes de exportación) son de actualidad desgraciadamente, todo eso y mucho más depende de nuestro lugar en el mundo. ¿Y cuál es nuestro lugar? En Europa. Estamos en el mapa con España y en Europa. No hay otro lugar y somos muy pocos. Europa es pequeña en el mundo de los nuevos imperios que se reparten minerales, energía, comercio, tecnología, y que quieren comercios en vasllos y siervos de las potencias, ya lo ven por su población, economía, ya lo ven por sus riquezas, por su economía, su liderazgo tecnológico y su poder militar y nuclear. Trump ha roto el tablero de nuestro viejo mundo, nuestra seguridad, nuestros aliados, y nos impone un campo de juego salvaje, con amenazas bélicas, sanciones comerciales, tipos tecnológicos y competencia normativa e ideológica. Nuestra Unión, que alienta y apoya a la construcción de Europa, se ha convertido en nuestro enemigo y ha permitido decir que en nuestro futuro, si todo sigue así. Puede parecer absurdo este análisis, pero es una realidad: Rusia y Ucrania lo acreditan.

Vuestra al principio, ¿lo razonable pensar en la independencia teniendo en cuenta estos parámetros de nuestra realidad? ¿Tiene algún sentido que el partido en ascenso electoral en Euskadi, el que aspira, legítimamente, a la mayoría y a gobernar nuestro país, tenga un proyecto tan contradictorio como irracional, tan absurdo como perjudicial, en esta Europa de 2023? Seremos capaces de superar esta contradicción insalvable?

RAMON JAUREGI ESKOLA ZAHARREKOA DA, ETA DUELA 40 URTEKO ARGUMENTU BERTINEKIN BUELTAKA SEGITZEN DU. MUNDU GLOBALIZATUAN ZER ZENTZU DUEN EUSKAL HERRIAREN BURUTABETZA ALDARRIKATZEAK; ESPAINIAR PROIEKTUA DELA UNIBERTSALA, MODERNOA, ONENA... GURE IRRAZIONALA DA, HAIENA ZENTZUZKOA. EDOZEIN KASUTAN, HORREN IRRAZIONALA BADA GURE INDEPENDENTZIA NAHIA, ZERGATIK EZ DIOTE BEHINGOZ EUSKAL GIZARTEARI DEMOKRATIKOKI ERABAKITZEN UZTEN?

EL CORREO



LAZ KLAVES

El día de la independencia, que celebra los vascos el 26 de mayo, se celebra en Euzkadi con una gran multitud de personas que se reúnen en las calles y plazas para celebrar la independencia. En esta ocasión, la multitud se reunió en la plaza de San Juan de Euzkadi, donde se celebró una gran manifestación por la independencia. La multitud se reunió en la plaza de San Juan de Euzkadi, donde se celebró una gran manifestación por la independencia.

Solo el 10% de los etarras que siguen en prisión ha roto con el colectivo de presos

Siete años después de la disolución de la banda, la amenaza mayoritaria de los etarras en la banda se aparta en la cárcel del Euzkadi.

JOSÉ A. HERNÁNDEZ

A finales del año pasado, el juez de instrucción de San Sebastián, Juan Carlos Rodríguez, ordenó al Euzkadi la disolución de la banda de ETA, lo que supuso el fin de la actividad de la banda. Sin embargo, la amenaza mayoritaria de los etarras en la banda se aparta en la cárcel del Euzkadi.

La contradicción dentro de las vascas ha sido una de las más duras de la historia de los vascos. Desde la independencia, los vascos han estado en una constante lucha por la independencia. Sin embargo, la amenaza mayoritaria de los etarras en la banda se aparta en la cárcel del Euzkadi.

Por su lado, los vascos han estado en una constante lucha por la independencia. Sin embargo, la amenaza mayoritaria de los etarras en la banda se aparta en la cárcel del Euzkadi.

La contradicción dentro de las vascas ha sido una de las más duras de la historia de los vascos. Desde la independencia, los vascos han estado en una constante lucha por la independencia. Sin embargo, la amenaza mayoritaria de los etarras en la banda se aparta en la cárcel del Euzkadi.

EL CORREO



«Con 61 años y 16 de interino me quedo en la calle por el euskera»

Un trabajador de Lanbide denuncia que ha sido despedido por su nacionalidad y por su idioma materno.

«El votante del PNV puede estar contento porque la reforma fiscal no es de izquierdas»

ENERGIA BERRITZAGARRIEN INPLANTAZIOAK BIOANIZTASUNEAN IZAN DITZAKEEN ONDORIOEI BURUZKO EZTABAIDAK ERABAT KATEATU TRANTSIZIO EKOSOZIALA EUSKAL HERRIAN. ALDIZ, TARTEKA ONDO DATOR HALAKO ALBISTEEI KASU EGITEA, ILARGIARI BEGIRA BEHARREAN, HATZARI BEGIRA IBILI GINTEZKE ETA. BEHARBADA, GURE MENDIETAKO PAISAIAN HAIZE ERROTAK IMAGINATZEAK AZTORATZEN GAITU, EUKALIPTO ETA PINU MONOLABORANTZA KALTEGARRIETARA ERABAT OHITUTA GAUDELAKO.

ELDIARIO.ES

Lanzarote intenta blindar su paisaje ante la carrera de las empresas por dominar la energía solar

Las administraciones locales se oponen a que grandes proyectos privados ocupen el suelo y pongan en jaque los valores paisajísticos de la isla: "No queremos ver nuestras tierras llenas de parques fotovoltaicos sin un criterio claro"

TITULAR BATZUEK HAUSMARKETARAKO AUKERA PAREGABEA EMATEN DUTE. PAISAIK BABESTEA KLIMA LARRIALDIA EKIDITEA BAINO GARRANTZITSUAGOA DA ANTZA. KONTUA DA ENERGIA TRANTSIZIOA EZ BADA EGITEN, BABESTU BEHARREKO PAISAIARIK ERE EZ DELA GERATUKO KLIMA LARRIALDIAK ERAGINDAKO ALDAKETEN ONDORIOZ. HORRA PARADOXA. ESAN GABE DOA, ENERGIA BERRITZAGARRIEN HEDAPEN ORDENATVAREN ETA JABETZA ERE DU KOMUNITARIOEN ALDE BETI. OIHANEKO LEGE KAPITALISTAREN KONTRA BETI.

ELDIARIO.ES

Un estudio confirma al eucalipto como primera causa de la disminución de aves en los bosques del noroeste peninsular

Según los investigadores, estos árboles —que en Galicia ocupan ya el 30% de la superficie forestal— ofrecen una "escasa oferta" de alimento y refugio y por eso albergan "muchas menos" especies y ejemplares de pájaros que las variedades nativas

Los parques eólicos tendrán que detener sus palas para evitar matar millones de aves y murciélagos todos los años

Un nuevo decreto de Transición Ecológica obligará a tener sistemas de parada "frente a situaciones de riesgo de colisión de aves" y no arrancar los molinos con viento suave las noches de julio a octubre

EL CORREON TRISTE ETA ETSITA DAUDE EZKER ABERTZALEAK ESTRATEGIA ALDAKETA ARRAKASTAZ ETA BATASUNEAN EGITEA LORTU DUELAKO.

MARCA



PILOTA DEPORTE ESPAÑOL? NOIZTIK? MUNDUAN "PELOTA VASCA" GISA EZAGUTZEN DEN KIROLAK ESPAINIAR ETA FRANTZIAR SELEKZIOAREN MENPE JOKATU BEHAR IZATEA BAI DELA ESKANDALUA.

GUK, UTOPIKOOK, EKARRIKO DUGU HERRI HONEN ASKATASUNA

Distopiak dira nagusi, han eta hemen; ikus-entzunezkoetan bezain beste, eguneroko titularretan edo lagunen etorkizuneko proiektzioetan. Lanbrotuta ditugu urrunera begiratzeko betaurrekoak eta ametsak pitzatzen zaizkigu. Proiektu eraldatzaile orok, orekariak soka gainean nola, ametsaren eta errealtatearen arteko orekari eutsi behar dio nahitaez; bizi duen mundu hau etorkizuneko mundu hobeago batean bilakatu nahi baldin badu, bederen. Orainaren eta etorkizunaren arteko sokatira da, pragmatismoaren eta idealismoarena, urrunekoa eskuratu nahi, baina eskuratutakoa zaindu behar duenarena.

Kapitalismoarentzat eta sistema neoliberalarentzat erregai bada distopia, zergatik altxatu behar du ezkerrak esperantzaren bandera? Zein garrantzia dute utopiek gure eguneroko borrokan? «Zuek, utopikook ekarriko duzue herri honen askatasuna», oihukatu zuen Telesforo Monzonek. Baina, utopikoak parekoak, etorkizunekoak dira beti, ala «zuek» hori gu gara? Norbera da?

“ETORKIZUNeko
GIZARTE DESIRAGARRI
ASKO POLITIKOAK DIRA,
EGINGARRIAK”

ELKARRIZKETA
Alba Garmendia Castaños

ERRIA
Argazkiak: FOKU



“Azken aldian utopiari eman izan diogun lekuak kontzeptua esanahiz husteko arriskua dauka, eta konfunditu egiten ditugu politika eraldatzailearen potentziala eta utopiarena”

Alba Garmendia Castaños [Ikaztegieta, Gipuzkoa, 1992ko urtarrilaren 5a] filosofoa, ikertzailea eta politikaria da. 2023ko ekainaren 17an Ikaztegieta udalerriko alkate bilakatu zen, 2023ko maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan Euskal Herria Bildu koalizioaren hautagaitza gailentzearen ondorioz. Iratzar Fundazioaren eta Txalapartaren artean sortutako Iparrorratza bildumaren hurrengo liburu biren egileetako bat da. Hain zuzen, Utopiari buruz idatziko duen liburu hori argitaratu aurretik, berarekin mintzatu nahi izan dugu.

Hasteko, galdera sinpleenetik hasi nahi genuke. Utopia: modu egokian erabiltzen den terminoa ote da?

Utopia nahiko kontzeptu polisemikoa da, eta egunerokoan ere adiera bat baino gehiagotan erabiltzen dugu. Zerbait utopikoa dela esaten dugunean, batzuetan, gurekin elkarriketan ari den horren alternatiba ezinezkoa dela adierazteko erabiltzen dugu, ameskerian dabilela, ez dela errealista... Beste batzuetan, kidego militantearekin etorkizun desiragarriak irudikatzeko erabiltzen dugu. Edo, azkenaldian bezala, eslogan politikoa ere izan da utopia.

Modu egokian erabili ote den? Ba segun nondik begiratzen den, edo zeren arabera baloratzen dugun hori. Esan nahi dut funtzioaren arabera eta erregistroaren arabera ulergarria dela utopia saski-naski moduko bat izatea. Kontzeptu askorekin gertatzen zaigu hori, gainera. “Filosofia”, “politika”,

“askatasuna”... halako kontzeptuek ez daukate adiera bat bakarrik kaleko hizkeran, eta normala egiten zaigu esanahi bat eta kasik bere kontrakoa ere hartzea hitz batzuk. Askatasunarena askotan aipatu izan da, eta paradigmatikoa da zentzu horretan: kolore guztietako alderdiek erabiltzen dute, nork bere esparru semantikoa iradokiz. Bada, utopiari dagokionez, antzera gertatzen dela esango nuke.

Hori bai, gauza bat da egunerokoan egiten den erabilera, eta beste bat da erabilera horren gaineko hausnarketa. Ni ez naiz inor esateko kontzeptu bat zuzen edo oker erabiltzen den, baina erabilera horren ondorioen kontziente izatea behintzat tokatzen zaigu. Alde horretatik, uste dut azkenaldian utopiari eman izan diogun lekuak kontzeptua esanahiz husteko arriskua daukala, eta konfunditu egiten ditugula politika eraldatzailearen potentziala eta utopiarena. Hau da, oihartzun erakargarria duen kontzeptua da **utopiarena**, baina ez dakigu oso ondo zer esan nahi duen; **etorkizun desiragarriaren ideia lauso batera mugatzen dugu**. Eta utopia hori baino askoz gehiago da. Iparrorratza bildumarako idazten ari naizen liburuan saiatu naiz hori argitzen: utopiak (literatur lanak direnean, batez ere), gizarte desiragarri konkretuak eta konplexuak dira, ez lukete izan behar eszenatoki politikoko *atrezzo* huts.



Distopia garaiak nagusitzen ari dira, diskurtsoetan, ikus entzunezkoetan, jendartearen bizi proiektuetan... Esan ohi da errazagoa dela munduaren amaiera irudikatzea kapitalismoaren edo patriarkatuaren amaiera irudikatzea baino. Zergatik interesatzen zaio eskuinari distopia? Zer etekin politiko ateratzen du hortik? Eta kontrara, zergatik da garrantzitsua utopia ezkerrarentzat edo mugimendu eraldatzaileentzat?

Ezer baino lehen, esan nahi nuke eskuinari (edo hegemoniari, botereari, patriarkatuari...) daukana baino gaitasun gehiago aitortzen diogula batzuetan. Ez dut uste hain zaila denik sistema erreproduzitzea botereguneetan zaudenean. Errekurtsoak behar dituzu eta, baldin badaukazu, ez duzu genio maltzur orojakilea izan beharrik gorpila biraka mantentzeko. **Erronka**, dakigunez, **bestea da: gorpila geldiaraztea eta orduan zer-nola egin asmatzea.**

Munduaren amaieraren diskurtsoari dagokionez, berriz, gure giroan instalatu den ideia bat dela ematen du. Sinetsi dugu hori, nolabait, eta inguruak ere eramán gaitu horretara: klima larrialdia dela, pandemiak direla, gerra-egoera globalak (lehen, eta orain, eta, dagoeneko, beti), feminismoaren eta euskararen aurkako oldarraldiak... **Oso ezkor onak gara.** Eta, noski,

beldurra beti izan da kontrol-mekanismo eraginkorra.

Horren aurrean ezkerrarentzat utopia denik giltza... ez dakit. Ez dut esango giro distopikoaren ifrentzua utopian ez dagoenik. Utopiak (batez ere, utopia kritikoak, ezkerrekoak, feministak, euskaltzaleak...) langai ederra dira bestelakoak izan zitezkeen munduak irudikatzeo eta gogo-esperimentu sozial gisara, nolabait esatearren. Baina ez gaitezen konfunditu: feminismoaren eta euskararen aurkako **oldarraldiek gaur behar dute erantzuna, eta erantzun hori, utopikoa baino, izan beharko da politiko**a, soziala, militantea, lokaztua, gatazkatsua, egunerokoa. Ezkerrak eta mugimendu eraldatzaileek, diozuen moduan, zeregin eta zer eragin asko daukate utopiatik aparte. Horregatik esaten nuen nahastu egiten ditugula politika eraldatzailearen potentziala eta utopiarena, bereizi beharreko bi eremu iruditzen zaizkit.

Mikel Urdangarinek Gaur8rako egindako elkarrizketa batean honakoa irakurri dizugu: “Utopia ez da sortu egikaritua izateko, ez da gizarte erreál bat eta ez da sekula existituko”. Sekula existituko ez baldin bada, zergatik borrokatu mundu edo gizarte bizigarriago edo desiragarriago baten alde? Ze leku dauka itxaropenak inoiz ezagutuko ez ditugun utopietan?

“Utopiak langai ederra dira bestelakoak izan zitezkeen munduak irudikatzeo”

“Ez gaitezen konfunditu: feminismoaren eta euskararen aurkako oldarraldiek gaur behar dute erantzuna, eta erantzun hori, utopikoa baino, izan beharko da politiko, soziala, militantea, lokaztua, gatazkatsua, egunerokoa”

“Desiragarria den guztia ez da utopikoa. Etorkizuneko gizarte desiragarri asko politikoak dira, egingarriak, baldin eta horretarako borondatea eta baliabideak jartzen badira”

Beste bereizketa bat egiteko aprobetxatuko dut galdera hori: **desiragarria den guztia ez da utopikoa**. Etorkizuneko gizarte desiragarri asko politikoak dira, egingarriak, baldin eta horretarako borondatea eta baliabideak jartzen badira. Eta itxaropen politiko erreál horrek utopikoak adinako indarra du. Adibide batekin azaltzeko: ez da utopikoa etxebizitza negozio-bide ez dela barneratzea eta eskubide bat dela ulertzea; benetan ulertzea eta barneratzea. Badaude horren adibideak Euskal Herrikan kanpo. Helburu hori gogoan eta itxaropen horrek elikatuta gauza asko egin ditzakegu, ez direnak utopikoak izango, eta izango direnak, lehen nioen zentzuan, politikoak. Hau da, ez dira izango ez idealak ez perfektuak, baina izango dira galderan aipatzen zenuten gizarte bizigarriago (baina ez utopiko) horretarako bide bat.

Utopia zertarako, orduan? Ba, batzuetan, ezertarako ez. Batzuetan irakurriko dugu eleberri utopiko bat eta lehen bezalatsu jarraituko dugu, tarte atsegin bat pasa ondoren (gogora dezagun produktibismoa ez dela gure balio-neurria). Nire ustez, dena den, utopiak badu potentziala gure gizarteak kritikoki begiratzeko, norma uste genuena distantziatik irakurtzeko eta *statu quo*a zalantzan jartzeko. Horrek gero (e) zer ekarriko duen ez da utopiari egotzi beharreko karga.

Geroz eta aurrerago joateagatik hobeto egongo garen ideia modernoa irauli behar dela diozu. Eskuratutako lorpenekin konformatu, ala beti gehiago lortu daitekeenarekin amestu behar ote du ezkerrak aurrera egin ahal izateko?

Ez bat eta ez beste. Irauli beharrekoa progresuan zegoen fede itsu hura da. Gizarteek beti aurrera egingo duten segurtasun hori – ikuspegi kontserbadore atzerakoia hezkuntzarekin gaitzen den ideia hori, edo nazionalismoa bidaiatzen sendatzen den uste inperialista hura, edo 2025ean jada naziak eta emaztea hiltzen duten gizonak ez gaitzakeena. Kontua da historia ez dela bideojoko bat, pasatako pantailak gordetzen joan gaitzakeena. Esan nahi dut ez dagoela konformatzeko moduko lorpenik, horiek ere eraldatzen joango direlako gaur edo bihar; ez dagoela “aurrera”rik. Horrekin lotuta, orduan, utopia ez da iritsi beharreko helmuga bat edo politika eraldatzaileek izan beharreko jomuga. **Utopia tresna bat da, jomugak birpentsatzeko eta horien inguruan hausnartzeko, besteak beste.**

Ezkerrak horren guztiaren aurrean zer egin behar duen? Etengabe aldatzen ari diren gizarteotara adi egon beharko du, erreálitate soziala modu justuagoan antolatu beharko du, autokritika konstantean ibili beharko da... ez dakit. Baina hori guzti hori, **ezkerraren eraldaketa politiko**a dei genezakeen hori, ez dagokio utopiari. Utopiak

“Ez da utopikoa etxebizitza negozio-bide ez dela **barneratzea eta eskubide bat dela ulertzea**; benetan ulertzea eta **barneratzea**. Badaude horren adibideak Euskal Herritik kanpo”

“Utopiak badu potentziala gure gizarteak kritikoki **begiratzeko, norma uste genuena distantziatik irakurtzeko eta *statu quoa* zalantzan jartzeko**”

“Utopiak balio dezake beste erritmo batean pentsatzeko, politikoki norantza joan hausnartzeko, desirak **berrikusteko...ez da lortu beharreko etapa bat, behin iritsita lasai lo egiten uzten diguna**. Hori ez da existitzen”

“Politika eraldatzaile errealen helburua behar luke **euskal errepublika sozialista-feminista-euskaldun-ekologista-eta-besteek, ez utopikoena**; zeren, utopikoa ez izateko, **erronka iraultzailea da inondik ere**”

balio dezake beste erritmo batean pentsatzeko, politikoki norantza joan hausnartzeko, desirak berrikusteko... baina ariketa espekulatiboa da, irudimen ariketa bat-edo. Berriro diot: ez da lortu beharreko etapa bat, behin iritsita lasai lo egiten uzten diguna. Hori ez da existitzen.

Utopia eremu politikoaren ikuspegitik erreparatuta, momentuan momentuko proposamen taktiko edo pragmatikoak agertoki utopikoetarako eskailera bezala ulertzen dituzu, ala muga bezala, bertan gotortuta goxo gera gaitezkeelako?

Eskilararen eta mugaren metaforak progresu modernoaren kontzeptura garamatza atzera. Desiragarri zaigun gizartera iristeko bidea bat eta bakarra dela uste izatera; pentsatzera bide horretan planto egin dezakegula, edo eskaileretan gora jarraitu. Irudi hori da atzean utzi beharrekoa.

Eta hori esan nahi nuen aurreko galderan, hain justu: utopia ez dela ez eskailera, ez muga. Utopiaren eremua eta politika eraldatzaile desiragarriena ez bereiztearen ondorio bat gehiago da kontrakoa pentsatzea. Sistemaren erreforma kontserbadorera mugatzeak edo, aldiz, etengabeko iraultzaren borroka aukeratzeak zerikusi gehiago du politikarekin utopiarekin baino. Beste modu batean esanda, erreformaren eta hausturaren eztabaida eztabaida politikoa da, estrategia

politikoaz ari garelako. Utopiak ez digu balio estrategia horietarako; beste zerbait eskaintzen dio politikari, eskaintzekotan. Aurreko galderan esaten nuenean utopiak beste erritmo batean pentsatzeko balio dezakeela, hori esan nahi nuen: utopiaren potentziala hausnarketa kritikoan dago, politika eraldatzaileak pentsatzerakoan irudimena zorrotz mantentzen lagun lezake, baina horraino.

Bukatzeko, Euskal Errepublika sozialista, feminista, euskaldun eta ekologista, eta izan daitezkeen -ista atzizki guztiak barne. Hori utopia bat al da?

Ez. Hori helburu bat da, desira bat, posizio politiko bat...

Orain arte dakidanarekin, behintzat, iruditzen zait **“-ista” guztidun euskal errepublikari utopia deitzen diogunean, konturatu gabe, ezinezko ideal bat ari garela inplikatzan**, eta ez dut uste hori inplikatu nahi dugunik. Aldarri feministekin kalera ateratzen garenean ez dugu esaten aldarri utopikoak egiten gabiltzanik, ezta? Ez dut uste, gainera, erantzun baliagarria denik hori utopia bat den edo ez ebaztea. Galdera esanguratsuagoa iruditzen zait zergatik deitu nahi diogun utopia horri, edo deitu nahi al diogun utopia. Hala eginez gero, hasieran esaten nuen oihartzun erakargarri eta lauso horretaz haratago ezer askorik iradokitzen ez dugun irudipena

daukat. Edo, bestela, erronkaren handitasunak ematen duen bertigoaren adierazle ez ote den, politika eraldatzaile errealen helburua behar bailuke euskal errepublika sozialista-feminista-euskaldun-ekologista-eta-bestek, ez utopikoena; zeren, utopikoa ez izateko, **erronka iraultzailea da inondik ere**. Galderari erantzunez, orduan, euskal errepublika hori izango da etorkizun desiragarria, izango da gizarte bizigarriagoa, izango da iraultzailea... baina ez da izango utopia bat.

EZIN DUGU JAKIN

Maddi Ane Txoperena Iribarren

*Gutako nor geratuko ote da
zahar, nahastuta, zalantzati...
baina amorratzen
geure lagun hilei buruz mintzatzeko?*

Raymond Carver, 2020.urtean, Munduko Poesia Kaierak

Alai gune partekatura sartu zenean Ametsek ez zion azken egunetako hutsuneari buruz deus ere galdetu.

Egun on, polita; nahi duzu konpota pixka bat?

Berendua prestatu eta jan berria zuten ume eta zaharren sukaldaritza tenorean, egun pare bat lehenago etxe ondoko belaitik bildutako sagarrekin. Joan den urtean idortzen utzitako aran pasak ere gehitu zizkioten; eta, gehiago goxatzeko, ondoko etxe blokekoek egindako ainar ezia. Azken ontzia garbitzen ari zen Amets, ur gelditan.

Itxura ona du, baina... ez, milesker.

Aulki batean eseri zen Alai, bero zetorren zeruertzari leiho irekitik begira. Beheitian haurren algarak entzuten ziren belar gaineko zabuetan. Adinekoak karta ilustratuekin jostetan ari ziren lauzazko zoladuraren gaineko aulkietan, begi bat ttipienen bizkarretan. Oihan eta Kaiet ere umeak gainbegiratzen ari ziren ilar ale batzuk bereizten eta elkarri solas-zirrika ari ziren bitartean.

Gazteekin gau txangora noa gero. Izarrak ikustera joanen gara. Etorri nahi duzu?

Uste dut ez daukadala gogorik.

Amarenagatik da?

Ez dakit.

Doluak luzeak izaten dira batzuetan, emaiozu denbora zeure buruari.

Gehiegi jakitearen akatsa zuen Ametsek; perfekzio neurriz kanpoko bat. Baita bere burua zuzentzeko ere.

Tira, nik ez dakit zer den odolezko ama bat galtzea.

Zuretzat Anttonio antzekoa zatekeen.

Baina ez nuen sartu nahi zure minean. Mina baino lehenago bertzeena delako...

Kantuan hasi zen Amets, zaharren estiloan dantzan, eguratsari karga kendu nahian bezala.

Olaia Inziarte entzuten duzu?

Klasikorik onena da.

Ama haren fana zen gaztetan. Gorriz pintatzen zituen begiak, berak bezala.

Hori bigarren diskoan zen, ala?

Zaldien hartan. Errautsa, uste dut. Zaldi bat ere izan omen zuen amak; jabetzan!

Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!

Dena, dena aldatzen da...

Osinaga?

Ez nekien hain klasikozalea zinenik!

Gaztetxoei erakusten dizkiet, nondik datozen jakin dezaten.

Hori ere entzuten zuen amak.

Bi hilabete ziren Alairi ama hil zitzaiola, eta urteak haren dolua prestatzen hasia zela. Azkenean hark itzali zion makina, ondoan erizaina eta auzoko lagunak zituela, zaharrari eskutik helduta. Ez zen zehazki hori gertatzen zitzaiona.

Gobernuak haren objektu pertsonalak berreskuratzeko baimena eman zidan, eta bere logela txukuntzen pasatu dut astea.

Ja?

Laster beharko du bertze norbaitek; ez zuen merezi gehiago luzatzea.

Denbora dago trantsiziorako oraindik. Bakarrik aritu zara?

Bai. Kaxa bat bertzerik ez zen.

Ja...

Mireiak eten zuen bien arteko elkarrizketa. Saltoka sartu zen salara, eta paretako arbelean bere izena marratu zuen eguneko zereginen zerrendatik.

Zer gisa, Alai?

Hementxe... tertulian.

Heldu den asteko txandetan sartuko zaitut ala berriro desagertzeko asmoa duzu?

Ametsek begietara begiratu zion, zuzen. Azkeneko egunetan hark betea zuen Alairen hutsunea, kexarik egin gabe; eta prest zen gehiagorako ere.

Egin ezazue nahi duzuen, baina oroitu: zaintza bi aldetako balantza bat da. Batek pisu gehiegi hartzen badu... krak!

Garagarno botila bat hartu zuen Mireiak apaletik, eta mendialdera nola abiatu zen behatu zuten bertze biek leihotik beheiti. Seguru aski gaua han pasatuko zuen, Ahmedekin.

Ez iezaiozu kasurik egin.

Ez nioke eginen hala egokituta ere. Baina arrazoi pixka bat badauka. Eskuzabalegia zara nirekin, Amets.

Elkar besarkatu zuten bi kideek, ez estuegi. Alaik behatz bat sartu zuen konpota soberakinen ontzian.

Mundiala dago!

Erran dizut.

Pixkatxo bat igual, probatzeko...

Eramanen dugu guk ere mendira?

Beirazko pote bat bete eta sukaldea erdizka utzita abiatu ziren ilunabarrerantz.

Bilduko dut nik gero.

Ume batzuk negarrez hasiak ziren kanpoan, eta, bainurako trepetak eskuetan, eurak bideratzen ari ziren Kaiet eta Oihan, elkarri gerritik helduta. Bertze norbaitek segituko zuen ilarrekin biharamunean.

Zaharrek esne zopak jan zituzten jangelan, eta euren geletako argi apalak piztu zituzten, banaka, bikoteka zein taldean. Ilunabar gorriztari begira egin zion Alaik Ametsi aitortza.

Amak argazki batzuk zeuzkan gordeta egurrezko kutxa batean, gaztea zenekoak. Eta...?

Igual-igual dago; pixka bat argalago, zimurrik gabe eta janzkera xeblebrez.

Lehen ia urtero aldatzen zituzten modak.

Bai, ia erridikulua. Baina irribarre hori ez nion sekula ikusi.

Euforiaren tontorra, seguru.

Ja...

Alaik ezin zituen burutik kendu argazkietan ikusitako hondartza beteak, ordu ttipietan gainezka zeuden ostatuak, drogak hanpatutako begiradak, pantaila handidun sakelako telefonoak, petrolioizko oinarriz egindako beroki eta zapata ederrak.

Ez dakit sekula ikusi dudan hain zoriontsu.

Zure amak bizitza ederra izan du, eritasunaren minak gorabehera. Kontent zegoen bizi izandakoaz.

Baina bertze poz mota bat ikusi dut hor. Eta bueltaka nabil; zergatik ez zidan ia hitz egin garai hartaz.

Beti galtzen da zerbait bidean; idazleren batek erran zuen. Zure amak anitz borrokatu zuen bizitza proiektu hau egonkortzeko.

Bai, atxilotetak eta hori dena, badakit.

Eta pribilegioei uko egitea. Eta bilerak. Eta lana. Belaunaldi horrek diseinatu zituen Euskal Herriko Gobernuaren zimenduak. Gu horretara sortu ginen. Errazagoa izan zaigu dena.

Eta uste duzu ongi ari garela?

Ametsi zintzurrean goiti etorri zitzaion irentsi berri zuen sagar konpotaren ezti hondarra. Hainbat eskualdetan hasiak ziren dagoeneko agertzen aldaketaren kontrako belaunaldi berriak, eta Herri Zaintzakoei egokitua zitzaien han edo hemen arazoren bat kudeatzea, baina ez zuen espero horrelakorik Alairengandik. Sermoi kutsurik gabe azaltzen saiatu zen, ahalik eta patxadarik handienez.

Euskara da hizkuntzarik erabiliena Euskal Herriaren ia zatirik handiengan, klima aldaketa gibelatzea lortu dugu, zaintza lanak modu orekatuan daude banatuta, astean hogeï ordu baino ez ditugu pasatzen derrigorrezko lan produktiboetan, substantzia toxikoekiko menpekotasunak ia ezerezera gutituta daude, munduko herrien arteko desorekak zuzentze bidean jarri ditugu...

Eta kultur lana, eta haurtzaroaren babesa... Bai, bai. Igual normalizatuta daukat hori dena. Baina ez zaizu iruditzen batzuetan bizitza zuzenegia dugula?

Bestaz ari zara?

Ez, besta egiten dut gustura nik ere. Ez dakit zer den erabat konbentzitzen ez nauena.

Sexualitatea?

Ez, horrekin konforme nago erabat. Eta harremanak beti izanen dira konplikatuak.

Nostalgia tranpatia da, Alai. Are gehiago nostalgia irudikatu bat denean. Eider Rodriguezen liburuetako giro ilun hori bezala: idatziaren ederragatik da bikaina, ez oinarrian daukan errealitateagatik.

Baina zer idatziko luke orain bizirik balego?

Hori ezin dugu jakin.

Gau txangora garaiz ailegatzeko puskak biltzen hasi zen Amets, eta etxeraino lagundu zion Alaik, baina ez zen harekin izarretara joan.

Bihar berriro hasiko naiz txandetan. Zureren bat egitea nahi baduzu, erraidazu. Handia zor dizut.

Ez dakit hagitx ados nagoen ordu trukearen kontu horrekin. Arriskutsua da. Hurrengo astean daukagu horri buruzko eztabaida.

Martxa honetan gobernurako fitxatuko zaituzte hurrengo errotazioan.

Proposatu didate jada.

Banekien!

Baina goizegi dela uste dut.

Nire ama harro legoke zutaz.

Nire ama ere bada, hein batean.

Egia da.

Zutaz ere harro zegoen.

Baina ni beti izan naiz zalantzatiagoa.

Eta eskerrak.

Eskerrak ahulak garen...

Olatz Salvador?

Ez, Anari!

Gaztetxoek entzuten banaute...

Alai beheko auzora abiatu zen, amarenera. Azkeneko aldiz egin nahi zuen lo gela xume hartan. Emakumearen usainak oraïndik han zirauen. Poltsan gorderik zituen argazki zaharrei begiratu zien; argazki berriagoei gero. Diferentziak bilatu zituen; antzekotasunak. Agian Ametsek arrazoia zuen. Edo ez. Hori ere ezinen zuen jakin.

Biharamun goizean logela erabat itxi eta giltzak itzuli zizkion auzoko etxeen administratzaileari. Gosaltzera gonbidatu zuten Kontxik eta Maitanek, eta nahi zuenean auzotik pasatzeko erran zioten. Ogi bat eman zioten opari, bere blokekoek dasta zezaten. Auzora bidean amaren omenez landatutako sagarrondoaren enbor fina laztandu zuen Alaik, etxeen ondoko sagastian. Urte batzuk beharko zituen lehendabiziko sagarrak emateko.

INDEPENDENTZIARA, EZKER ABERTZALEAREN PROPOSAMEN TAKTIKOEN GENEALOGIA

Ezker abertzalea 60 urte baino gehiago dituen mugimendu politikoa da. Euskal Herriaren independentzia xede hartuta, hamarkada hauetan hainbat proposamen taktiko aurkeztu izan ditu, unean uneko testuinguru politikoari egokituta, baina era berean, gure burujabetza maila handitzeko, lurralde batasunean urratsak egiteko eta autodeterminazio eskubidea gauzatzeko anbizioarekin. Euskal Errepublika eraikitze orubea etengabe marraztu du, eta proposamen horiek euskal jendarteari egindako eskaintza politikoa izan dira, beti minimo komunen gaineko adostasun bat lortzeko helburuarekin. Dossier honetan proposamen horien genealogia bat irakurriko duzu, eta KAS Alternatibaz geroztik gaur arte egindako bidea sintetizatzen ahalegindu gara.



Gure Eskuren manifestazioa Bilbon 2017an, Kataluniako erreferendumen testuinguruan. Argazkia: FOKU

ERREPORTAJEA

INDEPENDENTZIARANZKO BIDEA ETA GELTOKIAK



Rafa Diez
Usabiaga



Eugenio Etxebeste
Arizkuren

“Mugimendu abertzale, tradizional
eta kristauak bitarteko proposamen
taktikoen alde egin zuen”



Lizarrako Estatutua lantzeko batzarra 1931. urtean.

Nazio askapeneko eta askapen sozialeko prozesu bakoitzean, faktore erabakigarriak bat baino gehiago izan dira. Batetik, ekintza politikoko metodoen eta borroka-formen arteko harreman eraginkorra, bestetik, antolakuntza tresnak eta azkenik proposamen taktikoak. Gure kasuan, gainera, gure helburu estrategikoak bete ahal izateko indar-harreman egokia lortzeko ahaleginean eragina izan dute. Ekuazio horretan, kontuan hartu behar dira baldintza geopolitiko globalak, etsai politiko-ekonomikoen indarra eta egonkortasuna, eta subjektu iraultzailearen kontzientzia nazionalaren eta klase-kontzientziaren garapena. Kasu batzuetan, interrelazio horretatik herri-matxinada sortu da, eta herri-masa armatuek botere politikoa konkistatu dute, fase berriak irekiz dagokion prozesu politikoan.

Euskal Herriaren kasuan, ekuazio hori antzekoa izan da, euskal lurraldeetako emakumeek eta gizonek Espainiak eta Frantziak gure herriaren aurka etenik gabe garatu duten ekintza inposatzaile, errepresibo eta homogeneizatzaileari emandako erantzunean.

XIX. mendean, foruen defentsa —subiranotasun eta estatalitate politikoaren atal gisa— loturik egon zen Espainiako monarkiaren ondorengotza-borrokarekin, joera liberal berriekin eta industrializazioaren hasierarekin. Foruen aldeko mugimendua XX. mendeko abertzaletasunaren aurrekaria izan zen. Joan den mendean, Hego Euskal Herrian, EAJk bide eman zion nazio bateko kide izatearen sentimenduari, karlistaldietan galdutako

subiranotasuna berreskuratzeko nahiari eta nazioarteko mapa politiko berrian nazio eta Estatu izateko borondateari. Alde horretatik, mugimendu abertzale, tradizional eta kristauak bitarteko proposamen taktikoen alde egin zuen, nazio independente gisa eratzeko baldintza progresiboak sortuko zituztelakoan, nazioa-aitortzan eta subiranotasun/ autogobernuaren garapenean oinarrituta. Horrela ulertu behar dugu mugimendu horren protagonismoa Lizarrako Estatutuaren proposamenean edo 36ko Estatutuan, Espainiako Errepublikaren baitan. 36ko kolpe militar faxistaren ondoren eta frankismoaren errepresio nazional, kultural eta sozial betean, mugimendu abertzalea erresistentzia multipolar batean kokatu zen (erresistentzia nazionala, kulturala eta soziala), gizartea

“KAS Alternatiba modulatu egin zen, funtsean eduki berak mantenduta, EAJk erreforma politikoa eta abian zegoen konstituzio-estatutu prozesua legitimatzeko eginiko hautuaren aurrean”

“1982an, autonomien “harmonizazioak” Amejoramendua ekarri zion Nafarroa Garaiari, herritarrek erreferendumean legitimatu gabeko Estatuko autogobernu- edo autonomia-egitura bakarra”

altzarazi eta baldintza politiko berriak sortu nahi zituen.


Abagune horretan sortu ziren, EAJren pasibotasunari eta posizio ideologikoari aurre eginez, egungo ezker independentistaren lehen ernamuinak, ia hasieratik borroka nazionala eta soziala —Euskal Herriaren askapen- eta independentzia-prozesuaren atal banaezin gisa— uztartu zituen mugimendu abertzalearenak. Erresistentzia horrek bilakaera bat izan zuen antolakuntza- eta ideologia-ikuspegitik. Sozialismo sobietarraren arrasto ideologikoaren eta nazioartean hedatzen ari ziren askapen nazionaleko mugimenduen eraginez, hasiera batean utopia edo espejismo insurrekzionala aukera gisa ikusi bazen ere, hainbat azterketa eta

eztabaidaren ondoren, alboratu egin zen aukera hori. Une horretatik aurrera, borroka-moduen inplementazioarekin eta antolakuntza-ereduaren garapenarekin batera, alternatiba taktikoak definitu ziren Espainiako Estatuarekiko pulstu politikoari eusteko eta herri-masen kontzientzia kolektiboaren bilakaera bultzatzeko.

Borroka politikoaren eta proposamen taktikoaren arteko interrelazio horren lehen erreferentzia nagusia KAS Alternatiba (1975) deiturikoa izan zen, Franco hil ostean, Espainiako Estatuan irekiera demokratikorako zabaldu zen eszenatokian: “askatasun demokratikoak, amnistia, alderdi politiko independentistak legeztatzea, errepresio-

indarrak desagitea, Euskadiren Subiranotasun Nazionala aitortzea... eta horrek berekin dakar Euskal Herriak bere nazio-proiektua askatasun osoz gauzatzeko duen eskubidea eta Estatu propioa sortzea, langileen bizi-baldintzak hobetzea, Hegoaldean autonomia-estatutu nazional bat ezartzea eta Euskadiren behin-behineko gobernuaren eratzea”.

Proposamen horrek bi helburu izan zituen. Batetik, oinarri batzuk ezartzea prozesu demokratiko nazional baterako. Bigarrenik, Espainiako erreformaren testuinguruan, mugimendu abertzale, langile eta antifaxista sortu berri eta indartsuaren asimilazioa saihestea. Proposamen hori aztergai izan zen Txibertako



KAS Alternatibaren azala, 1976. Argazkia: Euskadi eta Askatasuna Entziklopedia.

bileretan, non fronte abertzale bat egituratzeko aukeraz eztabaidatu zen. Fronte horrek borroka armatua etenarazi eta martxan zen erreforma baldintzatuko zukeen. Izan ere, erreforma horrek, metamorfosi batean, frankistak demokratizatzen hartu zituen PSOEn eta PCEn bermearekin. Trantsizio eredugarri deiturikoa iruzurra izan zen. Bi urte geroago, KAS Alternatiba modulatu egin zen, funtsean eduki berak mantenduta, EAJk erreforma politikoa eta abian zegoen konstituzio-estatutu prozesua legitimatzeko eginiko hautuaren aurrean.

Aldi berean, Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzaleak Frantziako Estatuaren aurrean kokatu zuen Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa barne hartuko zituen departamenduaren aldarrikapena, nazio-aitortzarako eta autogobernurako tresna gisa, estrategia independentista batean. Proposamen horren garapen eta inplementazio politiko-militarrak kontraesanak sortu zituen, estrategia independentistaren ustezko kontsiderazio “etapistak” zirela-eta. Izan ere, estrategia horretan, lehen fase batean, Ipar Euskal Herria izango litzateke Hego Euskal Herriko prozesu politikoaren erretagordia moduko bat.

TRANSIZIOA ESPAINIAKO ESTATUAN
Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) autonomia-estatutua (1979) —neofrankismoak subjektu politikoari (lurraldetasuna), autodeterminazioari eta



Lizarra-Garaziko akordioa sinatzaileak. Argazkia: Euskadi eta Askatasuna Entziklopedia.

subiranotasunari dagokienez ezarritako baldintzak gorabehera— frankismoaren amaieran eta trantsizioaren hasieran protagonista izan zen mugimendu politiko eta sozialaren presioaren ondorio izan zen. EAJk aldarrikatu izan duen “negoziatzeko trebetasunetarik” harago, indarrean jarraitzen duen Estatutua oreka baten emaitza izan zen: frankismoak formalki “eman” zezakeenaren eta EAJk trantsizioaren aldeko apustua legitimatzeko behar zuenaren artekoa. Hori bai, trantsizioaren gestoreek lortu zuten subjektu politikoa zatitzea, euskal herritarren borondatea errespetatuko zuen nazio-aitortza saihestea eta, azkenik, frankismoaren aurkako borrokaren azken fasean metatutako kapital soziala zatikatzea.

Instituzionalizazioranzko urrats hori neurri handi batean baldintzatu zuen 1981eko *autokolpeak*. Izan ere, Tejeroren eta enparauen antzerki-saiotik haratago, berekin ekarri zuen monarkia indartzea, LOAParen bidez lurralde-eredua birbideratzea, NATOn sartzea (Hego Euskal Herriak egitura politiko-militar horri ezezko biribila eman bazion ere), PSOEn erabateko inplikazioa gerra zikinean eta industria-birmoldaketa basatia. Gaur mundu guztiak onartzen duen bezala, esparru autonomikoa berrinterpretatzeko estrategia baten abiapuntua izan zen *autokolpea*. Berrinterpretazio hori, LOAPak hauspotua, hainbat ekintza konbinaturen bidez garatu da urte guzti hauetan: Espainiako Kongresuaren ekintza legeegilea, autonomia-eskumenak indargabetu dituzten legeak eta ganbera



Euskal Herri Elkargoaren sorrera batzarra 2017an. Argazkia: FOKU

“Lizarra-Garazin estatutu-prozesuaren irakurketa kritikoa egin zen, eta oinarri batzuk finkatu ziren gatazka politikoa eta euskal gizartearen borondatea bideratzeko: Euskal Herriak du hitza eta erabakia”

politiko birzentralizatzailerik bihurtutako Konstituzio Auzitegiaren erabakiak. 1982an, autonomien “harmonizazioak” Amejoramentua ekarri zion Nafarroa Garaia, herritarrek erreferendumean legitimatu gabeko Estatuko autogobernu-edo autonomia-egitura bakarra.

Eredu autonomiko horri aurre egiteko erresistentzia-estrategiak eta oinarri politiko berrien eskaerak eraman gintuen, lehenik eta behin, Aljerreko elkarrizketa politikoen prozesura (1989) eta, ondoren, Lizarra-Garaziko akordiora (1998), Hego Euskal Herriak Espainiako Estatuarekin izan zuen inflexio-puntu historikoa. Ibilbide horretan, ezker abertzaleak bere planteamendu taktikoa garatu zuen, 1990ean Autonomia Estatutu Nazionalaren (Hego Euskal Herria) proposamena aurkeztuta, eta 1995ean, Alternatiba Demokratikoa deiturikoa planteatuta. Proposamen horien xedea izan zen erreferentzia-oinarri batzuk ezartzea, bai gatazka politikoa konpontzeko, bai Espainiako Estatuak bere kabuz birrindutako autonomismo-amejoramentuaren noraeza gainditzeko.

Lizarra-Garazin, mugimendu abertzale politiko, sindikal eta sozial osoaren eta garai hartan ezker konfederala zenaren adostasunarekin, estatutu-prozesuaren irakurketa kritikoa egin zen, eta oinarri batzuk finkatu ziren gatazka politikoa eta euskal gizartearen borondatea bideratzeko: Euskal Herriak du hitza eta erabakia. Era berean, une horretan, Iparraldeko eta Hegoaldeko mugimendu abertzaleak abian jarri zuen estrategia nazional bat, hiru erabakieremuak oinarri hartuta, gaur egun, gorabeherekin bada ere, jarraitzen duena. Hau da, ezker abertzalearen erresistentzia politikoa eta proposamenak autonomismoa higitu, jarrera politikoa mugiarazi (ELA eta EAJ, kasu) eta baldintza berriak sortu zituen Estatuarekiko pultsuan. Nabarmentzekoa da ere, Lizarra-



EH Bilduren III. Kongresua Iruñean. Zutunik ponentziak fase politiko honetarako ezkerreko independentismoaren proposamen taktikoa jasotzen du. Argazkia: FOKU

Garazi baino bi urte lehenago, EAEko eta Nafarroa Garaiko gobernuek (Ardanza-EAJ eta Otano-PSN) adostu zutela Organo Komun Iraunkor bat sortzea. Otano presidentearen ustelkeria-kasuak zapuztu bazuen ere aukera, gaur egun erreferentzia izaten jarraitzen du bi euskal lurralde horien arteko harremanak bideratzeko tresna gisa.

Hori bai, Aznarren PPK gidatutako Estatuaren ezezkotik harago, Lizarra-Garazi elkargune bat izan zen, lurralde-zatiketak ezaugarritutako etapa post-estatutario baten inguruan, urrats bat egiteko autonomismotik subiranotasunerantz, nazio-aitortzarantz, lurralde-egituraketarantz, proiektu nazionalaren garapena bermatuko duen subiranotasun-maila lortzeko eta, era berean,

euskal gizartearen borondate demokratikoa mugarik gabe errespetatzeko.

Lizarra-Garazi, Ibarretxe Plana eta ondoren Loiola, ezker abertzalearen betiko konpromisotik haratago, aukerak izan ziren, mugimendu abertzale osoak eta, bereziki, ezker independentistak ondo kudeatu ez zituenak. Horrek posizio subiranistak ahuldu zituen, Estatuaren aurrean, zeinak, ilegalizazioen bidez, Hegoaldeko eta bereziki EAEko mapa instituzionala aldatzea lortu zuen. Egoera berri horrek gogoeta estrategiko bat egitera eraman gintuen 2008an eta 2009an irekitako eztabaida-prozesuan.

Aldaketa estrategikoak eta euskal ekuazio politikoan borroka armatuaren aldagaia gainditzeak prozesu bat

zabaldu zuen, ezker abertzalea birsortzeko eta ezker independentistan indarrak batzeko, autonomismotik subiranotasunera igarotzeko bideari begira. Hego Euskal Herrian, EH Bildu, ezkerreko independentismoaren eta subiranotasunaren elkargune gisa, haziz joan da pixkanaka, lehen indar politiko municipalista bihurtu arte, Nafarroa Garaiko Gobernuan eta Espainiako Estatuan indar politiko erabakigarri, ultraeskuina neutralizatuz eta politika sozialak bultzatuz, eta bere burua proiektu nazional baten indar hegemoniko eta bultzatzaile gisa proiektatuz. Ipar Euskal Herrian, mugimendu soziopolitiko pluralak, Euskal Herri Elkargoa sortuta (2017), lehen urrats handi bat egin du, euskal lurraldeak aitortzeko eta instituzionalizatzeko, eta ezker independentista —EH Bai—

“XXI. mendeko lehen laurden honetara iritsi gara, Iparraldeko eta Hegoaldeko ezker independentistaren proiektu politikoarekin, estrategia independentistan eta sozialistan bidea urratzen jarraitzeko potentzialtasunarekin”

“Jauzi politiko berri hori behar dugu, euskal lurralde guztietan, bakoitzak bere erritmoarekin, oinarrizko kanpalekua goratuz. Kanpaleku taktiko berria, estrategia independentistan”

“Ez dago eredu sozial berririk subiranotasunik gabe, eta ez dago euskal sozialismorik subjektu nazional subiranorik gabe”

abertzaleentzako eta sektore aurrerakoientzako erreferentzia nagusi bilakatu da, lehen aldiz Parisko Asanblada Nazionalen eserlekua lortuta eta Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ezkerreko lehen indar bihurtuta.

Bitxia bada ere, bilakaera hori bat etorri da denboran —aldagai armatua desagertu arren— EAJk batuketa abertzalea bultzatzeari eginiko ukoarekin. Estatuarekiko pultsu politikoan eta proiektu nazional bati bultzada emateko oinarrizko aldagaietan oinarritutako batuketa behar lukeena. Horrek, aldaketa sozialen, pandemiaren, nazioarteko gatazken, mutazio disruptibo teknologikoen eta politikoen, eta bilakaera demografikoaren (migrazio prozesuak, jendartearen zahartzea...) testuinguruan, higatu egin du mugimendu abertzalea, eta posizio ideologikoa eta tentsio soziala galdu dira aipatutako autonomismotik subiranotasuneranzko urrats horretan.

EGUNGO EGOERA
60ko hamarkadako erresistentzia-mugimenduaren eta ondorengo ENAMen garapenaren ondoren,

XXI. mendeko lehen laurden honetara iritsi gara, Iparraldeko eta Hegoaldeko ezker independentistaren proiektu politikoarekin, estrategia independentistan eta sozialistan bidea urratzen jarraitzeko potentzialtasunarekin, eraldaketa erraldioen testuinguru geopolitiko batean, aurrerapen teknologiko disruptiboan (digitalizazioa, adimen artifiziala...) eragina duten espektatiba sozioekonomikoekin, eta planeta mehatxatzen duen klima-larrialdia neutralizatzeko desafioarekin.

Ezker independentista da Euskal Herriko lehen indar politikoa, eta lehen erreferentzia abertzale eta ezkertiarra Ipar Euskal Herrian. Gainera, sindikalismo independentistak kapital sozial handia metatu du prozesu politikoan; mugimendu feministak inpaktu sozial handia eragin du genero-berdintasunaren aldeko borrokan; mugimendu sozialak (pentsiodunak, ikasleak...) profil propioak ditu, eta hamarkada luzez gizartean eta erakundeetan bultzada eman ondoren, euskarak eta euskal kulturak desafio eta arrisku berriak ditu gaur egun.

Dena dela, bilakaera horretan, gertaera soziopolitikoen eta ekonomikoen abiadura handia proiektu nazionala bidegurutze berri batean kokatzen ari da. Mehatxuak eta ziurgabetasunak, baina baita proiektu nazionala esparru demokratiko batean eta gizarte-berdintasunean kokatzeko aukerak ere, politika inklusiboetan eredugarria izango den eremu batean, pultsu politiko globalari eginiko ekarpen berezi gisa.

Bidegurutze horrek behartzen gaitu jauzi politiko-juridiko bat egitera Estatuetik egungo indar-korrelazioan, hiru lurralde-eremuetan: nazio-onarpenetik abiatuta aldebikotasun-harremana sendotuko duena, subiranotasun/autogobernu maila berrietan kokatuko gaituena, aldebakarreko higadurak saihestuko dituzten blindajeekin, lurraldeen arteko loturak indartuko dituen proiektu nazionala dentsifikatuz eta, era berean, erabakitzeko eskubidea ate ireki gisa kokatuko duena euskal gizartearen borondate demokratikoaren errespetutik abiatuta.

Beraz, jauzi politiko berri hori behar dugu, euskal lurralde

guztietan, bakoitzak bere erritmoarekin, oinarrizko kanpalekua goratuz. Kanpaleku taktiko berria, estrategia independentistan. Jauzi politiko-juridikoa osatu behar da bultzada komunitario batekin, komunitate nazionala, proiektu nazionala eremu sozial guztietan indartuko duena (euskara, kultura, kirola, sozioekonomia...), eta aukera emango diguna aurrera egiten jarraitzeko indar instituzionalen eta sozialen korrelazioan, helmuga estrategikoa ezarrita Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskaldun batean.

Alde horretatik, ekintza politikoa, soziala eta sindikala ardazu behar dugu jauzi juridiko-politiko horretan, nazio gisa, herri gisa, jakinik nazio-auziak jarraitzen duela izaten estrategia politiko eta sozial osoaren faktore dinamizatzailea. Gizarte-ereduari dagokionez, aldarrikapen materialak, jendarte-eskubide berrien eskaerak (genero-berdintasuna, zaintza...) kokatu behar dira Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko pultsuaren barruan, subjektu nazional batentzako demokraziaren eta subiranotasunaren eskaeran,

gizarte-eredu alternatibo baten oinarri gisa, eta, beraz, Euskal Herrian Espainiako eta Frantziako mehatxu neofaxista guztiak arbuiatuta. Hori horrela, banaezinak dira subiranotasuna eta eredu soziala, independentzia eta sozialismoa. Ez dago eredu sozial berririk subiranotasunik gabe, eta ez dago euskal sozialismorik subjektu nazional subiranorik gabe.

Horregatik, abagune politiko honetan, geltoki taktiko berriak goratu egin behar ditu egungo eduki/esparru juridikoak, baldintza berriak sortuta proiektu independentistaren bilakaerarako, eta, hori bai, alde batera utzirik jauzi hori egungo esparruaren erreforma estetiko huts bihurtzeko aukera, independentismoa fagozitzatzeko edo asimilatze tresna. Hori da gakoa. Hortaz, estrategia independentista batean, indar-korrelazioen arabera bilakaera mailakatuekin eta geltoki taktikoekin, dimentsionatu egin behar dugu egoera berri honetan independentismo politiko, sindikal eta sozialaren indarra, bultzada emateko askapen nazional eta sozialaren prozesuari.

RECONOCIMIENTO NACIONAL, TERRITORIALIDAD Y AUTODETERMINACIÓN COMO EJES

ERRIA

En vísperas de la muerte de Franco, conscientes de que en el Estado español se avecinaba un proceso hacia una pseudo democratización, agentes de la izquierda abertzale apostaron por medir las relaciones de fuerza y adaptar la estrategia de liberación. Tras haber descartado la opción de la insurrección, adaptaron su modelo organizativo y crearon Koordinadora Abertzale Sozialista en 1975, para coordinar la dinámica contra el consejo de guerra contra Otaegi y Garmendia. En 1976, el movimiento de liberación, a través de la Alternativa KAS, enumeró las reivindicaciones políticas de mínimos que garantizarían la ruptura democrática con el franquismo. Desde entonces, hasta el cambio estratégico de 2010, se desarrolló una estrategia de negociación bilateral para alcanzar un marco democrático que cumpliera

esos mínimos. El marco democrático se representaba como la única estación táctica entre la situación actual y la independencia. Para ello, la estrategia consistía en obligar al Estado español a negociar, acumulando el mayor número posible de fuerzas en diferentes ámbitos.

En la década de 1990, tras haber aprendido la lección del fallido proceso de negociación en Argelia, a la estrategia de negociación se sumó la de la construcción nacional, es decir, la de la construcción de estructuras de estado, sin esperar al Estado español.

En 2010 el movimiento de liberación nacional apostó por cambiar de estrategia y superar la fase de lucha armada. En el marco de esta adaptación, se plantearon de otro modo las claves de la hoja de ruta de la liberación

nacional y la estrategia para lograr la unidad territorial. Se optó por lograr la unión desde la división (Nafarroa Garaia + Ipar Euskal Herria + Araba, Bizkaia y Gipuzkoa), construyendo mayorías democráticas en cada ámbito territorial y encauzando las fórmulas de articulación entre ellas. El movimiento de liberación nacional apuesta así por acumular la mayor soberanía posible, de cara a lograr la mejor relación de fuerzas con los estados español y francés. Así las cosas, además de lo negociable con los estados, se representa una estrategia gradual, dinámica y más compleja, hasta lograr la materialización del derecho a decidir de Euskal Herria.

Como se puede ver, la estrategia se ha ido adaptando, pero manteniendo los objetivos y concretando los contenidos:

ALTERNATIVA KAS [1976]

Reconocimiento nacional
Reconocimiento de la soberanía nacional de Euskadi (Euskal Herria).
Territorialidad
Reconocimiento de un Estatuto de Autonomía en Hego Euskal Herria.
Derecho a decidir
Reivindicación del derecho de autodeterminación de Euskal Herria.

ALTERNATIVA DEMOCRÁTICA [1995]

Reconocimiento nacional
A acordar con el Estado español: Reconocimiento de Euskal Herria: reconocimiento del derecho de autodeterminación y de la unidad territorial.
Territorialidad
Se exige al Estado español el reconocimiento de la territorialidad.
Derecho a decidir
La reivindicación del derecho a decidir del pueblo vasco como derecho democrático.

Demanda de respeto a la palabra de Euskal Herria.

ORAIN HERRIA, ORAIN BAKEA [2004]

Territorialidad
Una solución, partiendo de la situación actual.
Derecho a decidir
Interrogar sobre la estructuración en la que las y los vascos elegirán libre y democráticamente.

ACUERDO DE LOIOLA [2006]

Territorialidad
Acuerdos, convenios y órganos comunes entre ambas autonomías (EAE y Nafarroa Garaia).
Derecho a decidir
La defensa del respeto a las decisiones que la ciudadanía adopte libre y democráticamente sobre su futuro.

ACUERDO DE LIZARRA-GARAZI [1998]

Territorialidad
Construcción del sujeto nacional.
Derecho a decidir
La palabra y la decisión son de Euskal Herria.

ESTATUTO DE AUTONOMÍA NACIONAL [1990]

Territorialidad
Reivindicación de un estatuto basado en la soberanía para los cuatro territorios de Hego Euskal Herria.

EUSKAL BIDEA [2012]

Territorialidad
Partiendo de la realidad actual, debemos orientar un proceso unificador que incluya tres procesos.

Tres procesos diferentes, tres velocidades y ritmos diferenciados, etapas y procedimientos propios, consultas y preguntas adaptadas, pero con un único objetivo: que toda la ciudadanía vasca sea dueña del futuro político de Euskal Herria.
Derecho a decidir
Vía de democratización.

Poner en marcha un proceso constituyente basado en la participación y la voluntad de la ciudadanía y, por tanto, plenamente democrático.

Se trata de decidir nuestro futuro político, económico, social y cultural.

PROPUESTAS DE ANAITASUNA Y UZTARITZE [2007]

Territorialidad
Autonomía basada en el derecho a decidir de la ciudadanía de los cuatro territorios. Dado el carácter e identidad histórica de Nafarroa Garaia, estatus propio para este territorio.
Derecho a decidir
Democracia, marco democrático y derecho a decidir.

DECLARACIÓN DE AIETE [2011]

Territorialidad
Participaron agentes de toda Euskal Herria.
Derecho a decidir
“Sugerimos que los representantes políticos se reúnan y discutan cuestiones políticas, así como otras relacionadas al respecto, con consulta a la ciudadanía, lo cual podría contribuir a una nueva era sin conflicto”.

ABIAN [2015]

Reconocimiento nacional
Autorreconocimiento de nación.
Territorialidad
La adquisición de nuevos grados de estatus político en los tres territorios administrativos, incluida la propia condición reconocida de estado, el estadio final.

El proceso en tres territorios implica que no se puede garantizar que todos los pasos se den conjuntamente en todos ellos.

El modelo de estado confederal que propongamos priorizará el esquema de poder compartido.

Aun partiendo del proceso constituyente desde los tres territorios actuales, no podemos perder el punto de vista nacional.

Por ello, el desarrollo progresivo de este tejido nacional deberá reforzar las acciones sociales e institucionales.
Derecho a decidir
Ejercicio del derecho a decidir.

BASES POLÍTICAS DE UN ESTATUTO DE AUTONOMÍA PARA IPARRALDE [2024]

Reconocimiento nacional
El acuerdo de participación deberá reconocer la existencia de Zazpiak Bat y la aspiración por la integración de estos territorios.
Territorialidad
Autonomía para Lapurdi, Nafarroa Beherea y Zuberoa.

La Comunidad de aglomeración de Iparralde tendrá plena libertad para crear órganos o instituciones con las comunidades de Hego Euskal Herria. Para ello admitirá las posibilidades que ofrece el derecho europeo.

Derecho a decidir
Respeto al derecho a decidir de las y los vascos por parte del Estado francés.

EH BILDU, PONENCIA ZUTUNIK [2025]

Reconocimiento nacional
Lograr un grado de aceptación en el ámbito jurídico-político, especialmente a la hora de renovar los estatus políticos.

Dar pasos de cara a la comunidad internacional en diferentes ámbitos para lograr el reconocimiento de la comunidad internacional, como: Posibilitar la participación de las organizaciones vigentes en Euskal Herria en foros e instituciones internacionales, normalizando la presencia de delegaciones internacionales.

Territorialidad
Fomentar e institucionalizar las relaciones políticas, económicas, sociales y culturales entre las tres entidades administrativas. Desarrollar una cooperación institucional e institucionalización que vincule los ámbitos administrativos de Euskal Herria. Fomentar la organización y las dinámicas a nivel nacional.
Derecho a decidir
Dar continuidad a la reivindicación del reconocimiento explícito del derecho de autodeterminación que corresponde a Euskal Herria.

Hacer ineludible el derecho a decidir para la negociación de las reformas de los estatutos políticos. En definitiva, la actualización de los derechos históricos de los territorios vascos debería conllevar el reconocimiento del derecho a decidir.

Crear las condiciones para que sea posible el ejercicio de este derecho.



ERREPORTAJEA

Erria

BURUJABETZA PROZESUAK FRANTZIAR ESTATUAN; BIDAIA BAT ITSASOZ GAINDIKO LURRALDEETATIK METROPOLIRA

Nola lortu Frantziar estatuaren pean diren
euskal lurraldeen aitortza?

Zein aukera, aitortza instituzionalarentzat,
lege boterearen aitortzarentzat eta eskumenen
berreskuratzearentzat?

agintzen du, beraz, Baionan,
Estrasburgon, Bastian edo
Cayenan.

**Estatuaren
batasunaren izenean,
uniformitatea antolatu
du bere sistema
instituzionalean**

Testuinguru horretan eraiki da ipar Euskal Herriaren eskubideak, berezitasuna eta aitortza instituzioanaren aldeko borroka. Urratsak eman dira hamarkada luzeetan: gizarte ekimenak euskararen aldeko borrokan ikastola sare ederra osatu du, jendearen ekintzatik ere sortu da Laborantza Ganbara. Gure lurraldeen ezagutza instituzionalaren aldeko borrokak Euskal Elkargoaren

sorreran ukan zuen emaitza,
2017an.

bat egiteko beharraz jabetuta ere
berpiztu da Batera plataforma
berrikitan.

Baina, nola egin burujabetzaranzko bide hori, haren batasun politikoa eta uniformitate juridiko-instituzionala aldarritzat duen Estatu batean bizi den Ipar Euskal Herriak? Erantzuna, begiak altxa eta ikusmira itsasoz gaindi eramanda atzeman daiteke.

**Ipar Euskal Herriaren
erronkei egokitutako
Instituzio Propio baten
beharra oraindik ere
hor dago**

Ideologia jakobino eta Estatu eredu zentralista guztien gainetik ere, errealtetarekin talka egiten du Frantziak. Haen iragan kolonialaren ondorioz, aniztasun izugarriko lurraldeak eta herriak ditu beregain: Ozeano Indiotik hasi eta Pazifikoko uharteetaraino joanda, Ipar Atlantikoko edo Karibeko uharteetaik pasata.

Haren barnean ere, ez dira gutxi oraindik ere bizi diren herri eta nazioak: Bretaña, Kortsika, ipar Katalunia, Okzitania eta, noski, Euskal Herria. Ezinezko lana da edozein estaturentzat, halako aniztasuna uniformitate absolutoz eta zentralismo hutsez gobernatzea. Eta ugariak dira Frantziako zuzenbide



konstituzionalean, lurralde anitz horietara egokitzeko erabilitako printzipio eta tresnak. Batasun ozeano horren erdian, pluralismo uharte batzuk osatu diuzten tresnak.


Are interesgarriago, pluralismoa kudeatzeko printzipio eta tresna juridiko horiek ez dira tokian toki preso gelditu. Itsasoz gaindi, hala moduzko bidaia konstituzional bat egin dute eta Frantziar Estatuko beste hainbat lurraldetara iritsi dira. Pluralismo juridiko hori, nolabait ere, Frantziako zuzenbide komunerara iritsi da, bere eredu zentralistan hainbat pitzadura sortuz. Askotan, honakoa izan da bidea: Itsasoz gaindiko lurraldeetan (Kanakian, Polinesian, Karibeko uharteetan, Guianan...) printzipio pluralista bat martxan eman da, lehenik. Kortsikaraino iritsi dira, gero, pluralismo zantzu horiek. Batik bat, Kortsikako uhartearen estatus politikoaren aitortzaren bidean izandako hainbat eztabaida izan dira hedapen horren garraiatzaile. Eta, aldi bakan batzuetan, Parisko Konstituzioaren erreforma baten karietara, zuzenbide komuneraino iritsi da pluralismo politiko eta

juridiko hori. Bidea osatuta dago: itsasoz gaindiko lurraldeetatik Kortsikara lehenik. Eta Mediterranea zeharkatuta, Pariseraingo egin du bide herrien aniztasunaren aitortzaren aldeko tresna pluralista sorta horrek.

Bidea osatuta dago:
itsasoz gaindiko
lurraldeetatik
Kortsikara lehenik.
Eta Mediterraneoan
zeharkatuta,
Pariseraino egin
du bide herrien
aniztasunaren
aitortzaren aldeko
tresna pluralista sorta
horrek

Horiek erranik, Ipar Euskal Herriko eskubideen aitortzan, itsasoz gaindiko lurraldeetatik ekarritako printzipio eta tresnak erabilgarri izan ote daitezke? Edo Parisetik Baionako bidaian galduta gelditu dira?

Adibide batzuk ezartzearen,
bidaia horren adierazle izan
daitezke Parisko Konstituzioa





EH Baiko kideak FLNKS eta AJKM gazte erakundeko kideekin Baionan. Argazkia: EH Bai

“kutsatu” duten printzipio pluralistak: antolaketa instituzional propioak izateko aukera, eskumenak modu asimetrikoan eta berezitan antolatze eskubidea, antolaketa administratibo deszentralizatua eta subsidiaritatea...

Baionarako bidean, pluralismo juridiko hori erakartzeko manerarik ba ote den aztertze, hiru sail nagusitan sailkatuko ditugu. Bakoitzarentzat, Ipar Euskal Herriarentzat aukera izan daitezken erraten saiatuko gara. Hauek dira, hiru sail horiek: antolaketa instituzionalari lotutako berezitasun eta pluralismoa, lege botere propio baten aitortza eta eskumen sorta berezi eta asimetriko bat eskuratzeko aukerak.

INSTITUZIO PROPIOA: DENA PREST BAIONARAINO PORTURATZEKO Ukaezina da Frantziako antolaketa instituzionalean, itsasoz gairik lurraldeek izan duten eragina. Asimilazioaren eta uniformitatearen izenean,

kolonia ohien salbuespenezko erregimena bukatu zelarik, “departamentalizazioa” eman zuen martxan IV. Errepublikak (1946-1958). Ideia sinplea zen: hiritarrak berdinean izateko, kolonia ohiak departamentu bihurtuko dira. Metropolioaren eskumen berdinekin, antolaketa instituzional berarekin eta gobernantza eredu berdinarekin. Asmo horrek, errealtatearekin egin zuen talka, ordea. Lurralde hain ezberdinak formula horrekin gobernatzea nekeza suertaturik, lurralde batzuk (adb. Kanakia, Polinesia, Mayotte, Ternua ondoko Saint-Pierre-et-Miquelon...) estatus bereziak lortu zituzten. Kudeatutako eskumenak, antolaketa instituzionala... bertako errealtateei egokitu zitzairen (hots, tokiko arau eta instituzio tradizionalak integratuz, adibidez).

Logika horri aitortza konstituzionala jarri zaio 2003an. Hemendik aitzina, 74. Artikuluak gobernatzen ditu lurralde horiek eta “lurralde bat, estatus politiko bat” printzipioa

aplikatzen zaio. Hortik eratorri dira hainbat estatus politiko propio: lehen aipatutakoez gain, San Bartelemy eta San Martin uharteetako autonomia estatutuak, Wallis eta Futunako estatutua...

Idea horrek Kortsikan ukan du beste heldulekua. 1982tik, estatus politiko propioa du Kortsikak. Eskumenez jantzi dute urtez urte, eta gaur egun Kortsikako Lurralde Kolektibitateari Autonomia Estatutu bat onartzea dago eztabaidagai. Alsaziak Kortsikari erreleboa hartu zion, eta departamentu mailako instituzio berezi bat dauka, eskumen propio batzuk aitortuta dituenak.

Pluralismo instituzionala metropoliara iritsi da ere. Konstituzioak aitortzen du Estatuko edozein eremutan estatus propioa dute lurralde kolektibitateak egon daitezkeela. Paris eta Lyon dira estatus berezia duten bi adibide.

Eta Ipar Euskal Herrian zer? Formula horren alde piztu zen

mugimendu zibil eta politiko zabala 2010 urteetan. 2017an, Euskal Elkargo bat sortu zuen: estatus propioa ez duen instituzio bat. Elkargo hori “Estatus Berezikoko Lurralde Kolektibitate” bihurtzea falta da orain. Antolaketa berezi bat, eskumen bereziak, botere bereziak... Horra desafioa.

Konstituzioak aitortzen du Estatuko edozein eremutan estatus propioa dute lurralde kolektibitateak egon daitezkeela

Elkargo hori “Estatus Berezikoko Lurralde Kolektibitate” bihurtzea falta da orain

LEGE PROPIOAK: ITSASOA GAINDITZEKO GALERNA ANITZ ORAINDIK Legearen unibertsalitatearen doktrina oso azkarra da oraindik Frantzian. Nekez onar dezake Parisek inongo pitzadurarik Kapitaleko Parlamentuaren boterea partekatzea ekar lezakeenik.

Badira, baina, lege botere propioa duten lurraldeak Frantziako Estatuan. Bi dira horretarako atzemandako bideak. Lehena,

«espezialitate legislatiboa» deitzen den tresna da. Estatuak onartu du, lurralde batzuen berezitasunak sobera handiak direla Parisko zuzenbidea modu idorrean aplikatzeko. Lurralde horiek berezitasun bat dute, eta haien bizi lokala bertako arau eta organo tradizionalekin antolatzen dute. Konstituzioaren 74. artikulua pean gobernatutako lurraldeak dira: kolonia ohiak, alegia. Pariseko legeak bertan aplikatzeko, testu bakoitzak espreski idatzi behar du lurralde lurralde haren xedapenak aplikagarriak diren. Pariseko legea, beraz, salbuespenezko bihurtzen da. Muga bat dauka printzipioak: “subirautza legeak” deitzen direnak derrigor aplikatzekoak dira. Lege horiek Frantziako printzipio nagusiak biltzen dituzte: hiritartasuna, berdintasuna, giza eskubideak...

Estatuak onartu du, lurralde batzuen berezitasunak sobera handiak direla Parisko zuzenbidea modu idorrean aplikatzeko

Berezitasun horiekin aski ez, eta Parisek lurralde batzuei haien arau “tradizionalez” gain, benetako lege propioak egiteko eskubidea aitortu die. Kanakiak dauka botere hori onartua eta bere eskumenak kudeatzeko «herriko legeak» bozkatzeko aukera dauka. Benetako

autonomia legislatibo bat, alegia. Botere horrek Kanakiatik haragoko bidea egiteko nekeziak ditu, ordea. Polinesia ere antzeko normak onartuta dituzte: Tahitiko artxipielagoko Biltzarrak bere «herriko legeak» bozka ditzake, baina juridikoki ez dira lege. Norma administratiboak dira. Erran daiteke “kuasi-legeak” direla, berez Pariseko legeek araututako eremuetan erregulatze boterea baitute. Baina, Kanakian ez bezala, Parisek ez die lege pisurik onartzen.

Lege boterearen eztabaidak ez du bide erraza metropoliara iristeko. Kortsikak, gaur-gaurkoz, ez du legerik ezagututa. Gehienaz ere, lege batzuk bertako errealtatera moldatzea eskatzeko boterea onartuta dauka. Kortsikaren autonomia estatutua eztabaida betean dago, eta bertako erronka nagusia Bastiako instituzioei lege botere propioa onartzean datza.

Lege boterearen eztabaidak ez du bide erraza metropoliara iristeko. Kortsikak, gaur-gaurkoz, ez du legerik ezagututa

Kortsikatik kanpo ere, bide laburra egin du lege botere propioaren ereduak. Altsazia aipa daiteke, non erregimen

juridiko berezi bat indarrean daukan oraindik orain, XIX. mendean Alemania izan zeneko herentzia da erregimen propio hori. Hortik kanpo, Parisko Konstituzioak legeak modu mugatuan moldatzeko aukera eskaintzen du, esperimentazio normatiboaren bidez. Horra ere, EH Baik egin duen autonomia estatusaren proposamenaren gakoetakoa: Ipar Euskal Herriari lege botere propio bat ematearena.



EH Baik egin duen autonomia estatusaren proposamenaren gakoetakoa: Ipar Euskal Herriari lege botere propio bat ematearena



ESKUMENEN ASIMETRIA: ESTATUS POLITIKO BEREZIEN ALABA
Frantziako zuzenbide konstituzionala indar handienez sartu den printzipio pluralista eskumenen asimetriarena da. Luzaz, uniformitatearen izenean, begi txarrez ikusia zen lurralde batzuek besteek baino eskumen gehiago kudeatzea.

Baina, estatus politikoen eta antolaketa instituzionalen biderkatzearekin batera, naturaltasunez onartu da eskumenen arteko asimetria. Asimetria hori errotik lotuta dago Estatus politiko propio bat ukatearekin: horri esker

kudeatzen ditu eskumen gehiago Kortsikak, adibidez. Eskumen gehiago kudeatzeko helburuarekin ere osatu zuten Lyongo kolektibitate berezia.



Luzaz, uniformitatearen izenean, begi txarrez ikusia zen lurralde batzuek besteek baino eskumen gehiago kudeatzea



Baina botereen antolaketarako gako orokor bezala inposatzeko bidea egiten ari da eskumenen asimetria. Euskal Elkargoa bera izan daiteke horren adierazle. Euskal Elkargoa, udalerri mailako eskumenak komunean jartzen dituen instituzio bat da. Parisko legeak, elkargo horien estatusa definitzean, eskumenen pluralismoa antolatu da. Udalek elkargoari pasatako eskumen batzuk derrigor pasatzekoak dira. Baina beste hainbat hautazkoak dira. Hautazko eskumen horien barnean ere, noraino kudeatu eskumena erabakitzea libre da. “Interes komunitarioa” definitu behar da hautazko eskumen bakoitzarentzat. Bertan zehazten da, zein den udalaren gain gelditzen den eskumenaren parte, eta zein den elkargoaren menpe gelditzen dena. Adibidez, Euskal Elkargoak kirol instalazioak kudeatzeko eskumena eskuratu zuen. Horietan gehienak igerilekuak

dira. Baina, Ipar Euskal Herriko igerileku guztiak ez elkargoaren eskumenekoak. Bakarrik “interes komunitariokoak” kudeatzen ditu elkargoak (adb. Hazparnen edo Donapaulen). Beste igerilekuak, udalen ardurakoak dira (adb. Baionan edo Donibane Lohitzunen).

Eskumenen banaketa horrek, asimetria antolatu du elkargo desberdinen artean. Erran daiteke, elkargo adina eredu daudela: eskumen anitz kudeatzen dituzten elkargo “integratuak” edo ahalik eta eskumen gutxien kudeatzen dituzten elkargo “sakabanatuak”.

Muga handi bat dago, baina, eskumenen asimetria horretan. Lege botere propiorik onartuta ez dagoenez, kudeaketa administratibora mugatzen da eskumen horien kudeaketa. Zerbitzu bat, eraikin bat, lurraldearen planifikazio dokumentu bat... kudeatzen da. Erabakitze eskumena, Parisko Parlamentuak gordetzen du, berak daukalako lege boterea.



Lege botere propiorik onartuta ez dagoenez, kudeaketa administratibora mugatzen da eskumen horien kudeaketa



KONKLUSIOA: ETA ORAIN ZER? ITSASOTIK LURRERA.

Lehen begiradapean uste baino aukera gehiago eskaintzen ditu Frantziako eredu konstituzionalak Ipar Euskal Herriko eskubideen aitortzarako. Subirautzaren bidea luzea izanen da, baina tresnak egon badira. Itsasoz gaindi etorri zaizkigu eta Kortsikatik mailegatuta eskuratzeko modua antolatu da Konstituzioan.



Subirautzaren bidea luzea izanen da, baina tresnak egon badira



Orain bidea, egitea falta da, eta aukera horiek Baionako elkargora lurreratzea. Estatus berezi bat izanen duen instituzio propio bat, eskumen sorta asimetriko batekin, eta eskumen horien baitan erabakimena eduki ahal izateko lege botere propioarekin. Ez litzateke lorpen txikia.

HERRIEN ESKUBIDEAK, AUTONOMIA ETA BEREZITASUNEN AITORTZA FRANTZIAR ESTATUAN: ITSASOZ GAINDI DATORREN ONTZIA?

Erria

Estatu unitario, zentralista eta jakobinoaren ikur da Frantzia. Desberdintasunen eta nazio txikien ukazioan eraiki du bere eredu politiko eta konstituzionala. Bide nekeza du euskal nazioaren eskubideen aitortzak, soineko uniformizatzaile horretan. Aitortza horrek, baina, itsasoz gaindiko lurralde eta herriek irekitako zidorretan atzeman dezake heldulekurik. Euskal nazioaren aitortzak, Kanakiatik hasi eta Kortsikatik pasatzen den bidea hartzeko aukerarik izango ote luke?

PLURALISMO JURIDIKOAREN AITORTZA FRANTZIAR ESTATUAN

	Kanakia	Polinesia	Itsas-gaindiko lurraldeak (K° 74 artikulua)	Kortsika	Ipar Euskal Herria
Berezitasun instituzionala	BAI. Autonomia Estatutu bat.	BAI. Subirautza partekatu bat eta antolaketa instituzional berezi bat.	BAI. Printzipio orokorra: lurralde bat, estatuto bat. Estatus aniztasun handia: autonomia estatutuak, estatus bereziak, estatus klasikoak.	BAI. Estatus politiko berezia. Autonomia Estatutu batera jotzeko eztabaida.	EZ. Zuzenbide komuneko tresna bat: Euskal Elkargoa. Udalerrri mailako instituzioen elkargo bat da.
Lege boterea	BAI. Kanakiarren lege propioak: “herri legeak”. Formalki legeak dira, Kanakiako instituzioaren eskumenetara mugatuta.	EZ ERABAT Tahitiko “herri legeak”. Ez dira formalki legeak, baina baimena dute legeari dagozkion eremuetan normak hartzeko.	SALBUESPENEZKO ERREGIMENA «Espezialitate legislatiboa» Frantziako legeak aplikatzen badira, baldin eta xedapen batek lurralde horiei lege jakin bakoitza aplikagarri egiten badiete. Beraien « ohituren» ezagutza. SALBUESPENA: Subirautza legeak derrigor aplikatzen dira: Frantziako erregimenaren printzipio komunak definitzen dituzten legeak [hiritartasuna, giza eskubideak, berdintasun printzipioa...]	EZ. Legeak adaptatzeko aukera – Pariseren baimena ukanez geroz, eta esperimentazio eskubidea.	EZ. Institutzio administratiboa. Legeak egiteko botererik ez. Baina araudi administratiboak egiteko gaitasuna – bere eskumenei lotuta.
Eskumenen asimetria	BAI. Eskumen sorta zabala. Estatuari tradizionalki dagozkion eskumen batzuk [eskualde mailako itunak izenpetzeko gaitasuna]. Konstituzioaren kontrako printzipioak aplikatzeko gaitasuna [adb. Enplegu publikoak kanakiarrei erreserbatzeko gaitasuna / korpus elektoral berezi baten eraketa autodeterminazio eskubidea aplikatzeko]	BAI. Autonomia Estatutuak hainbat eskumen sorta berezi aitortzen dizkio Polinesiari.	BAI. Estatutu bakoitzak definitzen du lurralde bakoitzari dagokion eskumen sorta berezia.	BAI. Kortsikako Estatutuak hainbat eskumen bereziki aitortu dizkio, beste lurralde kolektibitateek obratzen ez dituztenak.	EZ ERABAT. Udal elkargoen zuzenbide komuna aplikatzen. BAINA Zuzenbide hori oso malgua da: eskumen batzuk hautazkoak dira, besteak derrigorrak. ETA, organo bakoitzak erabakitzen du eskumen bat zer neurriraino aplikatzen duen [interes komunitario berezi bat definituz]. Adb. Haurtzaindegi batzuk, euskal elkargoak kudeatzen ditu eta beste batzuk udalek zuzenean. Eskumena lurralde mailan berezitua da.

HERRI ZAHARRA ASKATU, MUNDU BERRI BAT ERAIKITZEKO

Euskal nazio askapen mugimenduak bere oinarrietan du internazionalismoa; askapen nazional eta sozialaren aldeko borrokan funtsezko zutoinetako bat da. Lauzpabost hamarkada atzera, mundua kapitalismoak eta sozialismoak ordezkaturako bi eredu antagonikoren arteko talkan, argia zen hautua: antiinperialismoa eta sozialismoa. Alta, aldatu da mundua: erori da eredu antagonikoen arabera eraikitako ordena, hautsi dira hainbat helduleku politiko-ideologiko, aldatu da ardatz ekonomikoa.

Ezegonkortasunak, azelerazioak, gerra hotsek, eta hegemoniagatiko lehiak ardazturiko mundu batean, zein da ezker independentismoak izan beharreko begirada? Zein dira egun nazioartean aritzeko ezinbesteko printzipioak? Zerk definitzen du XXI. mendeko euskal internazionalismoa?



Aimar Etxebarria

ERREPORTAJEA

Argazkiak: FOKU

XXI. MENDEKO EUSKAL INTERNAZIONALISMOA: PRISMATIKO BERRIAK, PARADIGMA BERRIEN ZERBITZURA

Aldatu da mundua, eta harekin baita nazioarteko harremanak ulertzeko eta egiteko modua bera ere. Paradigma aldaketa horrek egokitzapen baten beharra ekarri du euskal internazionalismora, eta harekin batera, horren etorkizuneko nolakotasunaz eztabaida ezker abertzalera. Printzipioekiko leial, elkartasuna, lankidetza eta kooperazioa ardatz dituen internazionalismo poliedriko bat aldarrikatu du Elena Beloki Sortuko Nazioarteko Harremanetarako arduradunak.

“Falta da amets edo utopia partekatu bat, proiektu eta bisio amankomun bat. Uste dut hori ez dagoela, ez dagoelako hegemonikoa den proiektu sozioekonomikoaren antagoniko amankomunik”



“Momentu batzuetan, gertatzen diren egoera batzuekiko zerbait esan ezin denean, tokatzen dena da egotea. Eta egon ezin denean, tokatzen dena da ez molestatzea”. Hori da internazionalismoa, herrien eta mugimenduen arteko elkartasuna eta lankidetzaren bideratzeko jardueraren politikoa. Elkarrengandik gertu, ondoan, baina elkar nahasi gabe. Elkar zainduz, eta hurkoaren erabakiak errespetatuz.

Ezker abertzalearen askapen nazional eta sozialaren aldeko borrokan funtsezko zutoin bat izan da internazionalismoa azken hamarkada hauetan, betiere horren helburupean kokatua, Elena Beloki Sortuko Nazioarteko Harremanetarako arduradunak azpimarratzen duenez. Batez ere, 1960ko hamarkadatik aurrera hasi zen internazionalismoa indarra hartzen, eta 80ko hamarkadan iritsi zen bere adierazpen gorenera. Deskolonizazio prozesu batean, eta mundua kapitalismoak eta sozialismoak

ordezkatzaren zuten bi eredu antagonikoren arteko talkan zen unean, garrantzi handia hartu zuten nazio askapen mugimenduek, eredu eraldatzaile eta iraultzaileak oinarri hartuta.

Bazen mugimendu horiek guztiek partekatzen zuten elementu bat, Belokiren esanetan: mundu eta gizarte ikuskera bat, eredu sozioekonomiko bat, Sobietar Batasunak eta hartatik eratortzen ziren sozialismo eredu ezberdinek ordezkatzaren zutena. Garai hartan jaio zen Askapena ere, euskal askapen mugimenduaren baitan internazionalismoa landuko zuen tresna. Internazionalismoa lekutua baita, eta horrek Euskal Herritik irakurketa espezifiko bat eskatzen baitu: “Herri ukatu bat da Euskal Herria, bere askapen sozial eta nazionalaren alde borrokan ari den herri bat”.

Ordurako baziren Euskal Herrian bertan ere internazionalismoa jorratzen zuten beste hainbat aktore,

Komite Internazionalistak edo Emakume Internazionalistak, esaterako. Bazen Askapenaren eta haien artean partekatutako elementu bat: mundu ikuskera antiinperialista bat eta eredu sozioekonomiko (sozialismoa) jakin bat; baina baziren euren arteko ezberdintasunak ere, batez ere, aipatu eredu horrek Euskal Herrian hartzen duen formari zegokionez. “Guretzako garrantzia zeukan internazionalismoak Euskal Herriko askapen sozial eta nazionalaren estrategia politikoa elikatzeak. Ez genuen ulertzen internazionalismoa borroka isolatu baten moduan”, nabarmendu du Belokik.

Izan ere, jardueraren ez altruista bat da internazionalismoa Belokirentzat: “Internazionalismoa lotuta doa defendatzen den proiektu politiko nazional eta sozialari”. Bada, eremu horretan antzematen du Belokik azken urteotan internazionalismoaren baitan egin den aldaketa handiena.

PARADIGMA ALDAKETA
Aldatu da mundua, eta aldatu da berarekin batera internazionalismoaren kontzeptzioa bera ere. Erori dira urte luzez nazioarteko agertokian erreferentzia ziren hainbat helduleku politiko-ideologiko, eta erori da eredu antagonikoen arabera eraikitako logika. Mugitu da ardatz ekonomikoa Asiarantz, agertu dira aktore gehiago nazioarteko xake partida jokatzeko ari direnak, eta multipolaritatea nagusitu da, hegemonia bakar baten kaltetan. “Fase oso bortitza batean gaude, kapitalismoaren gainbehera batean, potentzia nagusien eredu ekonomikoa ekoizpen eredu batetik finantziarizazio eta digitalizazio fase batera sartu den momentu batean”, dio Belokik.

Paradigma aldaketa horrek ekarri ditu berarekin batera bestelako sakoneko aldaketa batzuk ere, internazionalismoari zuzenean eragiten dietenak: “Falta da amets edo utopia partekatu bat, proiektu eta bisio amankomun bat. Uste

dut -jarraitu du Belokik- hori ez dagoela, ez dagoelako hegemonikoa den proiektu sozioekonomikoaren antagoniko amankomunik”. Ondorioz, eta Belokiren ustez, gaur egun garatzen den internazionalismoak gehiago du aspektu batzuekiko aliantzak jostetik, proiektu gidatzaile edo integral baten aldeko borrokara atxikitzen baina.

“Oso kurioa da, adibidez, Palestinarekin gertatzen ari dena. Uste dut inoiz egon den elkartasun uholderik handiena ari garela ikusten gaur egun; baina elkartasun hori ezaugarritzen duten faktoreak oso pluralak dira. Askok partekatuko dugu Palestinak estatu bat izateko daukan eskubidea, eta beraz, aldarrikatuko ditugu Palestinaren nazio eskubideak, autodeterminazio eskubidea ardatz. Baina, bereziki, genozidio baten aurkako jarrera izan da hainbeste pertsona Palestinaren aldeko kausara gerturatu dituen faktorea”, sostengatu du Belokik.

Horrek guztiak eraman du XXI. mendeko internazionalismoa oso oinarritzeko diren elementuen inguruko aliantzetara mugatzera, puntualagoa izatera, espezifikoagoa; maila batean, orain arte internazionalismoaz, nazioartegintza eta diplomaziaz eginak ziren ulkerak berak ere nahastera. Are, paradigma aldaketak ekarri du Belokiren iritziz denborari buruzko bestelako garapen eta ezaugarritze bat ere: “Prozesu eraldatzaileak beste denborazkotasun bat eskatzen du. Ez dago E egunik, eraldaketak epe ertain eta luzeko ibilbide bat egitea eskatzen du”.

Horretan guztian izan du euskal internazionalismoak birkokatze beharrik ere. “Badu arrisku bat gaur egun hedatzen ari den internazionalismo eredu berriak, eta hori da asistentzialismo baterako bideak zabaltzea. Kontua da ez dagoela modu bakar bat gaur nazioarteko elkartasunak hartu beharko lukeen formari buruz



jardutean, baina beharrezkoa da hori ikuspegi asistentzial batetik beharrean, proiektu eraldatzailearen ikuspegi batetik lantzea”, aldarrikatu du Belokik. Zentzu horretan, garrantzia berezia eman dio testuinguru honetan aliantzak ehuntzeari, momentu bakoitzean norberaren tokia zein den ulertzeari, aliatuen ondoan egoteari, eta haiek egiten eta erabakitzen duten hori errespetatzeari.

Egokitzearen beharra Angela Davisen aipuari jarraiki, zalantzak ditu Belokik esperantza bera ere partekatzen ote den: “Niri gustatuko litzaidake benetako proiektu eraldatzaileak egotea, eta kapitalismoak ordezkatzaren duen horren aurrean eredu eraldatzaileak azaleratzea. Burujabetzen errespetuan -jarraitu du- eta aberastasunaren banaketa justu batean oinarritutako mundu bat izatea. Baina hori horrela ez den bitartean, uste dut garrantzia berezia hartzen duela

internazionalismoak, herrien arteko harremanak elkartasun eta lankidetzara ikuspegi batetik garatzeak”.

Bada, marraztu ditu Belokik XXI. mendeko euskal internazionalismoak gidalerrotzat hartu beharko lituzkeen printzipioak: burujabetzekiko eta, beraz, autodeterminazio eskubidearekiko errespetuz jokatzera, besteen lurraldeetan egiten diren injerentziak arbuizatzeko; eskubide ororen defentsa egitea; eta negoziazioa eta elkarriketa gatazken konponbiderako erreminta nagusitzat aldarrikatzea. “Hori da guk defendatzen dugun internazionalismoa. Besterik da herri batek erresistentziarako eskubidea aldarrikatzen badu, baina erabaki hori ez dagokigu guri”, oroitarazi du.

Zentzu horretan, euskal internazionalismoaren antiinperialista dela nabarmendu du, gerraren aurkakoa: “Guretzako oinarri

bat izan da NATOri eman zitzaion ezetza; ez dugu uste armak igortzeak eta mundu militarista eta beliko bat egiteak mundua bera toki seguruago batean bilakatzen duenik. Ez dugu ulertzen nola herrialde bat okupatuz norbere herrialdea seguruago egin daitekeen”. Horren aurrean, bestelako segurtasun eredu bat aldarrikatu du Belokik, segurtasun eredu integralago bat: “Lurralde orotan jendeak duinki bizitzeko adina izateak garamatza mundu seguruago batera, desarmeak garamatza mundu seguruago batera, eta ez klimaren suntsiketa, eta baliabideen ustiaketa eta lapurreta oinarri dituen eredu kapitalistak”.

Hori guztia, baina, Euskal Herritik behar da egin, herri ukatu batetik, estatu ez den baina izateko bokazioa duen nazio batetik. Horregatik uste du Belokik autodeterminazio eskubidearen eta demokraziaren aldeko aldarriek berebiziko garrantzia hartzen dutela euskal internazionalismo lekutu

“Guretzako oinarri bat izan da NATOri eman zitzaion ezetza; ez dugu uste armak igortzeak eta mundu militarista eta beliko bat egiteak mundua bera toki seguruago batean bilakatzen duenik. Ez dugu ulertzen nola herrialde bat okupatuz norbere herrialdea seguruago egin daitekeen”

“Autodeterminatzeak esan nahi du zure buruaren jabe izan, eta zure oraina eta etorkizuna definitzeko aukera izatea, zure jendeak dituen beharrei ahalik eta hobekien erantzutea. Hori da Euskal Herritik egin dezakegun ekarpena”

“Feminismoak erakutsi digu ezberdinen arteko aliantzak egiten; eta beraz, gogorarazi digu helburua dela, gutxiengo intentsuak eraikitzea bainoago, gehiengo zabalak erdiestea”

horretan, batez ere estaturik gabeko herri baten prismatik. Horrek askapen prozesuaren beharrak ase behar ditu, erritmoak eteteko eta bizitzeko gaitasuna izanez, eta bidean sortzen diren kontraesanak kudeatzeko prest egonez: “Autodeterminatzeak esan nahi du zure buruaren jabe izan, eta zure oraina eta etorkizuna definitzeko aukera izatea, zure jendeak dituen beharrei ahalik eta hobekien erantzutea. Hori da Euskal Herritik egin dezakegun ekarpena”.

Paradigma aldaketa guztietan gertatu legez, badira azken urte hauetan eragin positiboa izan duten mugarriak ere, feminismoa kasu: “Feminismoak erakutsi digu ezberdinen arteko aliantzak egiten; eta beraz, gogorarazi digu helburua dela, gutxiengo intentsuak eraikitzea bainoago, gehiengo zabalak erdiestea”.

Hala, Belokik aurreratu du zabalak dagoela ezker abertzalearen baitan gaur egun

euskal internazionalismoak hartu beharko lukeen gorpuzkerari buruzko eztabaida. Zentzu horretan, aktore propio bat izatean baino gehiago, euskal askapen mugimenduaren baitako praktika integratzaile baten prismatik ulertzen du garaiko internazionalismoa: “Aldatu da mundua, eta aldatu dira horren aurrean izan ditugun posizionatzeko moduak ere”. Elkartasuna, lankidetzara eta kooperazio ardatzak lantzen dituen internazionalismo poliedriko bat aldarrikatzen du. Proiektuak berak izan behar du internazionalista Belokiren ustez, eta beraz, askapen nazional eta sozialerako marraztutako estrategiek zehazten dituzten beharrak eta erritmoak lirake euskal internazionalismoa bera gaur egun definitzen dutenak.

Hori horrela, eragileen arteko elkarrekintzaz dihardu Belokik, herri mugimendu askotariko batek garatzen duen praxiaz. Elkar elikatzen duen internazionalismoaz,

finean, nork bere ekintza soziopolitikoaren erdigunean jartzen duen jardueraz, estrategia eta agenda bateratuez. Testuinguru konplexu eta belikoen aurrean jarrera eta posizioak hartzeaz, izan Palestina, Kuba, Sahara edo Kurdistango egoeren aurrean, esaterako. “Mundua oso konplexua eta iluna da. Baina txikitasunetik eta antolatutako hainbat herri sektoretatik badago esperientziarako eta esperantzarako tokia. Utopiarik gabe ez gara inor, eta utopia hori izateko esperantza izan behar dugu”, aldarrikatu du.

[EUS]

GURE INTERNAZIONALISMOA ULERTZEKO ETA NAZIOARTEAN ARITZEKO PRINTZIOIOAK

• **Iparrorratza: euskal askapen prozesua.** Guk Euskal Herriaren askapen prozesuarekin dugu konpromisoa [Euskal Herria burujabea izatea eta eredu sozioekonomiko zuzena eta ekologikoa izatea dugu helburu].

• **Abiapuntua:** Euskal Herria **herri ukatu bat** da, eta beraz, borrokan ari den herri bat. Horregatik, Euskal Herriak zeregin garrantzitsu bat dauka: aitortza lortzea.

• **Bakearen alde, eta gerraren kontra.** Herrialdeak inbaditzeak eta herriak okupatzeak arazoak areagotzen ditu.

• **Herrien burujabetza**ren alde, eta injerentzien kontra.

• Ezkerrak **inperialismo forma ororen kontra** egon behar du, eta mundu hobe baten alde.

• Gatazka politikoen aurrean, **elkarrizketa eta akordioa** dira konponbide egonkorrerako erreminta bakarrak.

• Beste herri eta mugimenduekin harremana izateko helduleku nagusiak: autodeterminazio **eskubidea** eta **demokrazia** [herri eta pertsonena].

• **Lankidetzan, elkartasunean eta kooperazioan** oinarritutako internazionalismoa.

• Herrien eta herri sektoreen Europaren alde, Europaren burujabetza

ren alde.

• **E[ra]gin! Gure herriaren eta munduko herrien alde lan** egin.

[CAS]

PRINCIPIOS PARA ENTENDER NUESTRO INTERNACIONALISMO Y NUESTRA LABOR INTERNACIONAL

• **Meta: proceso de liberación nacional vasco.** Estamos comprometidas con el proceso de liberación de nuestro pueblo [Euskal Herria soberana, con un modelo socioeconómico justo y ecológico].

• **Punto de partida:** Euskal Herria es un **pueblo al que se le niega su existencia** y, consiguientemente, es un pueblo en lucha. Por tanto, Euskal Herria tiene un objetivo primordial: lograr su **reconocimiento**.

• **A favor de la paz y contra la guerra.** Invadir y ocupar países y pueblos agudiza los problemas.

• Por la **soberanía de los pueblos** y contra las injerencias.

• La izquierda **debe rechazar toda forma de imperialismo** y luchar a favor de un mundo mejor.

• El **diálogo y el acuerdo** son las únicas herramientas para la resolución duradera de los conflictos políticos.

• Principios de nuestro trabajo en común con otros pueblos y movimientos: derecho de **autodeterminación** y **democracia** [de los pueblos y de las personas].

• Internacionalismo basado en la **colaboración, la solidaridad y la cooperación**.

• A favor de la **Europa de los pueblos y de los sectores populares**, por la soberanía de Europa.

• **E[ra]gin! Trabajando a favor de nuestro pueblo y de todos los pueblos del mundo.**

[FR]

PRINCIPES POUR COMPRENDRE NOTRE INTERNATIONALISME ET NOTRE TRAVAIL AU NIVEAU INTERNATIONAL

• **But: processus de libération nationale basque.** Nous sommes engagé(e)s dans le processus de libération de notre peuple [un Pays basque souverain, avec un modèle socio-économique juste et écologique].

• **Point de départ:** le Pays basque est un **peuple que l’on prive de son existence** et, partant, c’est un peuple en lutte. Le Pays basque a donc un objectif primordial : obtenir sa **reconnaissance**.

• **En faveur de la paix et contre la guerre.** Envahir et occuper des pays et des peuples aggrave les problèmes.

• Pour la **souveraineté des peuples** et contre les ingérences.

• La gauche **doit refuser toute forme d’impérialisme** et lutter pour un monde meilleur.

• Le **dialogue et l’accord** sont les seuls outils pour la résolution durable des conflits politiques.

• Principes de notre travail en commun avec d’autres peuples et mouvements : **le droit à l’autodétermination** et la **démocratie** [des peuples et des personnes].

• Un internationalisme fondé sur la **collaboration, la solidarité et la coopération**.

• En faveur de l’**Europe des peuples et des secteurs populaires**, pour la souveraineté de l’Europe.

• **E[ra]gin! Oeuvrons en faveur de notre peuple et de tous les peuples du monde.**



Igor Zulaika

EH Bilduko Nazioarteko Harreman
eta Politika arduraduna

MUNDUA SUTAN DAGO, ETA GU HERRI UKATU ETA TXIKI BAT GARA

Mundua toki ilun batera doala esatea ez da askorik esatea, egunero medioetan ikusten dugu nazioarteko egoera okertzen; medio nagusiek munduan gertatzen denaren ikuspegi partziala ematen badigute ere, ukaezina da gauzak ez doazela ondo herrien askatasunaren alde borrokan ari garenontzat.

Egiaztapen horrek ez gaitu itxaropena galtzera eraman behar, ezta gutxiago ere; gertatzen dena argi izateak, egin behar duguna argitzen lagundu beharko liguke. Beraz, eta modu laburrean, zer ari da gertatzen?

Bigarren Mundu Gerraren ostean ezarritako instituzioak eta mekanismoak (multilateralismoa, nazioarteko zuzenbidea, Nazio Batuak, nazioarteko instituzioak...) modu argian abandonatu dituzte mendebaldeko potentzia nagusiek (mendebaldeko hainbat estatuk paradigma horiek bere onerako zirenean bakarrik errespetatu baditu ere).

Adibidez, azken urteetan AEBek eta Mendebaldeak argi utzi dute indarkeriaz aritzeko prest zeudela haien interesen alde: Irak, Libia, Siria... Errusiak Ukraina inbaditzean bere gaitasun militarra eta indarra erabiltzeko borondatea erakutsi ditu, mendebaldearen bortizkeriaren monopolioa hautsiz. Gerrak tabu izateari utzi dio.

Israelek Gazan genozidio bat burutu du munduaren begien aurrean, ondoriorik gabe, ordenu multilateralaren ezintasuna agerian utziz berriro ere. Jakin badakigu instituzio horiek ez dituztela orain arte genituen arazoak konpondu, eta Palestinan edo Saharan jokatu duten papera oso mugatua izan dela; baina

nazioarteko zuzenbidearen alde egoten jarraituko dugu, Nazio Batuen eta bestelako antolakunde multilateralen alde lanean, datozen garaietan helduleku bilakatuko direlako inperialismoen eta basakeriaren aurrean.

Bizi dugun desegonkortasun horretan jendeak segurtasuna bilatzen du, eta, gaur-gaurkoz, olatu autoritarioak erantzuten dio behar horri, Europako sei ekonomiarik handienetan eskuin muturra botere exekutiboan edo gertu dago. Autoritarismoaren eta demokrazia liberalen arteko talka bat gertatzen ari da.

Europako Batasunaren baitan olatu horrek indarra hartzen duen bitartean, Batasunak ez du proiekturik, eta kanpora begira bere interesen kontrako estrategia bat jarraitu du AEBen esanetara: Europa ekialdeko ezegonkortasunean (Armenia, Georgia, Ukraina...) eta Errusiarekin eta Txinarekin zituen zubiak apurtu.

Europa noraezean dago, barne adostasunik gabe eta norabide argirik gabe, momentuko gaiei momentuko erantzunak ematen dizkie, izan klima aldaketa, IA, edo gerra. Badirudi badagoela kezka puntu bat, Leta eta Draghi planek adierazten dutena, baina erabakirik ez dago.

Rosa Luxembourgek idatzia utzi zuen militarismoa kapitalaren metaketaren fase guztiekin eskuz esku joaten dela, eta zoritxarrez, badirudi Europan kapitalaren metaketaren fase honetan industria militarri heldu nahi zaiola mozkinen tasak bermatzen jarraitzeko (eta diru publikoaren transferentzia etengabea azkartzeko), seguruena gerraren arriskuari muzin eginez.

Zoritxarrez, ezegonkortasun handiko garaiak datozkigu; ezin dugu aurreikusi zeintzuk izango diren hurrengo gerra eta inbasioak, baina orain arteko arauak aldatzeak, orain arte izoztuak egon diren gatazka batzuk berpiztu eta berriak irekitzera eraman gaitzake, indar harremanak aldatu eta ezinezkotzat jotzen ziren ekinbideei bide ematean. Etorkizuna iluna da, ez dugu dudarik. Mundua sutan dago, eta gu herri ukatu eta txiki bat gara, eta batzuetan badirudi ez dugula horren aurrean eragiteko aukera handirik. Baina gogora ekar dezagun iluntasun horren aurrean guk badugula iparrorratza, askapen prozesua, eta gure konpromisoa Euskal Herriaren askapen prozesuarekin daukagula: Euskal Herria burujabea izateak eta eredu sozioekonomiko zuzena eta ekologikoa izateak elkartzen gaitu.

Gau ilunenean, itsasoaren erdian itsasargiak eta izarrak izatea da onena, bidea definitzen lagunduko diguten printzipioak eta jokamoldeak. Guk baditugu, erreferentzia sakonak, gure askapen prozesuan oinarria dutenak.

Ezker independentistak herrien alde egiten jarraituko du beti, herrien burujabetzaren alde eta injerentzien kontra; esaterako, santzio kolektiboen kontrako jarrera mantendu dugu (Nazioarteko zuzenbideak onartzen dituen salbuespenetan salbu, genozidioen kasuan, adibidez), herrien kontrako neurriak direlako.

Modu berean, **bakearen alde eta gerraren kontra agertuko gara. Izan ere, herrialdeak inbaditzeak eta herriak okupatzeak arazoak areagotzea baino ez duelako ekartzen, konpontzetik urrun. Konbentzimendu osoz esan dezakegu armak**

bidaltzeak eta eskalada militarrek ez dutela bakea ekartzen. Gatazka politikoen aurrean, elkarrizketa eta akordioa konponbide egonkorrak erdiesteko erreminta bakarra direla uste dugu, eta horien alde egingo dugu.

Gurea inperialismoaren kontrako jarrera da. Ezkerraren papera ez delako potentzia inperialista baten edo bestearen alde egitea, gaitz-erdiaren bila- edo, mundu hobe baten alde lerrokatzea baizik.

OTANen aurreko jarrera azpimarratu beharrekoa da, antimilitarismoan eta antiinperialismoan oinarritu zena: 1986an EH Bildun bat egin dugun tradizio politiko guztiak elkartu gintuen posizio bat da (Garaikoetxea Lehendakariak, EAJren baitan egonda ere, ezezko botoaren alde egin zuen; baita Herri Batasunak, Ezker Batuak eta egun EH Bildun lanerako espazioa topatu duten beste lagun askok ere).

Herrien eta herri sektoreen Europaren alde egingo dugu, Europaren burujabetzaren alde; baina ez gaude prest autonomiaren izenean menpekotasun gehiago onartzeko, edo autonomiaren izenean neoliberalismoaren eta diru publikoen transferentzia gehiago egin daitezen.

Azkenik, egoera honetan ezin dugu pasiboki jokatu, ekimen politikoak bideratzea dagokigu; ez da erraza izango, aurrean izango ditugun erronken tamaina ez delako nola nahikoa izango, baina gure lana ez da kirol-esatariena, gu ez gaude gertatzen dena azaltzeko, gu dagoena aldatzeko lanean ari gara, gure txikitasunetik, baina beti gure herriaren eta munduko herrien alde lanean.

NAZIONALISMO HUTSALAREN FUNTZIOA NAZIO ERAIKUNTZARAKO

Michael Billig akademikoaren arabera, nazionalismo hutsalak nazionalismoa eguneroko bizitzan agertzeko moduari egiten dio erreferentzia. Sotila da, egunerokoa. Nazionalismo hutsalak eragina du nazio-identitateak modu sotil eta errutinazkoan indartzen duten jokabide, ohitura, sinesmen eta sinboloetan. Herri-kulturan, ohituretan, tradizioetan, komunikabideetan eta hizkuntzaren eta sinboloen eguneroko erabileretan agertzen da. Hori dela eta, gure eraikuntza nazionala indartzeko, eta ondoan ditugun eraikuntza nazional hegemonikoak identifikatu eta horiei aurre egiteko, nazionalismo hutsalaren inguruko gogoeta bat egitea pentsatu dugu dossier honetan. Kohesiorako tresna da? Edo zapalkuntza nazionalerako ideologia bat?



Patrulla Aguila - Madrid 12 de octubre de 2009 - Día de la Hispanidad Desfile aéreo.



Jon Fernandez

Doktore aurreko ikertzailea EHUn

EUSKAL HERRIA ESTATUEN NAZIONALISMO BANALAREN AURREAN

Noizkoa da nazioaren kontzeptua, antzinakoa ala modernoa? Noiz sortu zen zehazki nazio bakoitza, eta nola zabaldu zen nazio-kontzientzia? Posible al da nazionalismoen artean bereizketak egitea, hala nola, nazionalismo ‘etniko’ eta ‘zibiko’-en artean? Galdera horiek guztiak egokiak izanik, zaharkitu samar geratu dira nazionalismoari buruzko teorizazioetan. Mende-aldaketarekin batera, adituek galdera berriak plazaratu dituzte. Konkreteki, Michael Billig gizarte-psikologo ingelesak ‘nazionalismo banalaren tesia’ garatu zuen galdera honi erantzuteko: nola birsortzen dira nazioak *hemen* eta *orain*? Hau da, zerk ahalbidetzen du nazio-kontzientziaren iraupena gizarte garaikideetan?

“*Abertzaleoi nazionalismo banalaren kontzeptua interesgarria suertatzen zaigu Espainiako eta Frantziako estatuek gure herria zatitu eta asimilatzeke erabiltzen dituzten tresnak hobeto ezagutzeko*”

Duela hogeita hamar bat urte, nahiko zabaldua zegoen nazionalismoa krisi-garaietan indar zitekeen ez ohiko fenomeno zelako ideia. Horren aurrean, Billig-ek argudiatu zuen gerra, krisi ekonomiko edo natura-hondamendi batek naziokidetza-sentimenduaren pasiozko espresioen agerpena eragiteko, beharrezkoa zela egonkortasunezko garaietan ere nazio-kontzientzia elikatzea herritarren eguneroko bizitzan. Nazionalismo banalaren kontzeptuak, beraz, gure eguneroko bizitzan presente dauden forma diskurtsibo subliminalei egiten die erreferentzia. Ideia honako hau litzateke: ezarritako nazio-estatuetan, oharkabean geratu ohi den nazionalismo-mota bat dago, hainbat erritual eta praktikan jasotzen dena, eta herritarrei etengabe gogorarazten diena nazio-kontzientzia bat, itxura natural eta objektiboa emanez nazio horri.

Adibiderik paradigmatikoen ez litzateke izango politikari edo manifestari batek «Viva España» edo «Gora Euskal Herria Askatuta» oihukatzen duen bitartean astintzen duen bandera, baizik eta eraikin publiko batean zintzilikatuta dagoena, oharkabean. Halaber, mapak oso tresna eraginkorrak dira nazioa eta haren lurraldea modu bisualean imajinatzeke eta bestelakoak izan litekeen muga batzuei itxura objektiboa emateko. Sinbologiaren eta kartografiaren erabileraz gain, hizkuntza-praktika jakin batzuek ere ari gara, politika instituzionalean eta komunikabideetan ohikoak izanik deixiak (adibidez, «herrialde *hau*» edo «*gure* kultura») eta elipsiak (adibidez, «Errepublikak» edo «Presidenteak» esatea, *Frantziako* Errepublikaz edo *Espainiako* gobernuburuaz ari garela zehaztu gabe, hartzaileak ulertuko duelakoan). Arrakasta izanez gero, praktika diskurtsibo horiek herritarren artean ere zabalduko lirake.

Abertzaleoi nazionalismo banalaren kontzeptua interesgarria suertatzen zaigu Espainiako eta Frantziako estatuek gure herria zatitu eta asimilatzeke erabiltzen dituzten tresnak

hobeto ezagutzeko. Izan ere, estaturik gabeko nazionalismoek une eta gune banalak izan ditzaketen arren, estatudun nazionalismoek askoz ere tresna gehiago dituzte diskurtso subliminal hori hedatzeko eta euskal herritarron erreferentziazko marko mentalak espainiartzeko edo frantsesteke.

Nola gauzatzen da hori? Bada, eskolan bertan hasten den prozesua da. Irakurtzen eta idazten ikasi eta, handik gutxira, geografia eta historia ikasten hasten gara ‘Inguru’ edota ‘Gizarte’ deitzen diegun irakasgaien bidez, eta sarritan estatuaren ikuspuntuan ardaztutako ikasmaterialez lagunduta. Estatuaren ikuspuntuan ardaztuta diot, zeren eta multinazionalak banatutako testuliburuetan (euskaratuta egonik ere) ez baitago apenas Euskal Herriaren arrastorik ez mapetan, ez azalpenetan. Aitzitik, azalpenok Espainia edo Frantzia aurkezten dute analisi sozial eta historiko arrazionalerako marko natural eta eztabaidaekin gisa. Euskal lurraldeei buruzko informazioa jasotzen duten orrialdeak eskasak eta osagarriak izateak bidea irekitzen dio euskal nortasunaren interpretazio erregionalistari ikasleen irudimenean, Euskal Herriari berezko izaera aitortu beharrean. Hori gutxi balitz bezala, Ipar Euskal Herriko eskola publikoen kasuan, legez derrigorrezkoa da bandera frantziarra eskegita izatea eraikinaren aurrealdean.

Aurrera egin ahala, curriculumari darion kutsu horrek ez du atzera egiten. Esate baterako (Hego Euskal Herrian zentratuko naiz hemendik aurrera), selektibitate prestatzeko bidean, Batxilergoko ikasleek zenbaitetan Espainiako estatuko mapa fisikoa izaten dute ikasgela barruan, laguntza moduan. Era berean, testuliburuan azalduta ikusten duten ‘nazionalismo’ bakarra ‘euskal nazionalismoa’ da, nazionalismo espainiarra ez omen delako ikasi beharreko ‘nazionalismo’ bat, baizik eta ezagutza ofiziala eta arnas dezakegun sen ona; hots, zerbait ustez objektiboa, naturala, subliminala, nonahikoa eta aldi berean ikusezina... *Banala*.

“*Asimilazioaren arriskuaren aurrean, komeni da abertzale edo euskaltzaleok tresna kontzeptualak eskura izatea eguneroko bizitzako espainolismoaz edo frantziarkeriaz kontziente izateko eta horri buelta ematen saiatzeko*”

Hezkuntzaz eta testuliburuez harago, bestelako masa-hedabideak ere funtsezkoak dira. Telebistak, irratiak, prentsak, sare sozialek... Guztiek zabaltzen dute nazionalismo banala, eta ez soilik politikarien diskurtsoa erreproduzitzen dutelako. Adibidez, zientzialariengandik informazioa jasotzen dugunean (adibidez, meteorologoengandik), berdin-berdin ager dakiguke Espainiaren mapa gure pantailetan, nahiz eta marraztutako mugak zientifikoki objektiboak ez izan, inondik inora ere.

Aisialdiaren alorrean, Ekain Rojo Labaienek aztertuta dauzka futbolaren proiektio mediatikoan agertzen diren diskurtsoak. ‘La Roja’ren arrakasta azkenengo bi hamarkadetan oso propaganda eraginkorra izan da espainiarzaletasunaren alde. Izan ere, kirol-arloko kazetariak oso ohituta gauzkate estilo honetako esaldietara: «*toda España* defendiendo en el área»; «*tenemos* que empatar como sea», etab. Zelaian dauden hamaika jokalar horiek gu ordezkatzeko gaituztela sinetsita bagaude (hori sinetsarazi digutelako), psikologikoki onuragarria izango da guretzat talde hori gailentzea norgehiagokan, una heldutakoan «campeones del mundo» sentituko garelako eta zirrara hori milioika pertsonarekin partekatuko dugulako. Halaber, ‘reality show’ direlakoetan (*MasterChef*, *La Voz* edo *La isla de las tentaciones* ditut gogoan) pantailen beste aldean nazio oso bat dagoen ilusioa sortzen da, ohikoa baita parte-hartzaileek, aurkezleek, ‘coach’ek edo tertulialariak audientzia nazioarekin parekatzea: «gracias por dar a *toda España* la oportunidad de escuchar tu voz»; «delante de toda España... Qué vergüenza (bikotekideak tentatzaile bati musu ematea)».

Mediaset, Atresmedia eta RTVEren ohiko audientzia-kuotak ikusita, eta kontuan hartuta EITB ere ez dagoela antzeko praktikatik guztiz libre, Urtzi Urkizu *Berria* egunkariko kazetariak «Herria (des)egiten duten lehiaketak» izeneko iritzi-artikuluaren agerian utzi zuen bezala, arrazoiak ditugu pentsatzeko euskal herritar

ugari horrelako adierazpenetara ohituta daudela. Mezu horietara ohituta egoteak ez du esan nahi den-denok ‘mikroespainolismo’ horiek modu akritikoan barneratzen ditugunik, ezta denontzat ikusezinak eta subliminalak direnik ere. Herritarrok modu ezberdinetan elkarreragin dezakegu nazionalismo banalarekin. Ildo horretan, litekeena da jende askorentzat adierazpen horiek oharkabean gelditzea eta eurek ere diskurtso hori erreproduzitzea, eta ‘gune gogor’ abertzale batek, aldiz, mezu horien aurrean erreakzionatzea (segundo batez bada ere) euren buruari gogorarazteko irakurritakoa edo entzundakoa ez datorrela bat euskal naziokidetza-sentimenduarekin.

Nolanahi ere, estatuen nazionalismo banalaren arrakasta ukaezina da gurean. Horregatik, asimilazioaren arriskuaren aurrean, komeni da abertzale edo euskaltzaleok tresna kontzeptualak eskura izatea eguneroko bizitzako espainolismoaz edo frantziarkeriaz kontziente izateko eta horri buelta ematen saiatzeko, izan seme-alabek jasotzen duten hezkuntzaren gabeziak osatuz, izan ikus-entzunezkoak modu kritikoan kontsumituz, izan senide, lagun eta ezagunekin ditugun elkarrizketetan marko mental arrotzetatik ihes eginez. Espainolismoaren edo frantziarkeriaren ez normalizazioarekin batera, jakina, Euskal Herria ardatz nagusi duten diskurtso eta ikurren gizarteratzeari ekin behar diogu geure hedabideetan, geure hezkuntza-sistemako eskola-sare ezberdinetan, geure jai herrikoietan, geure elkarrizketetan... Horixe da bidea.

¿POR QUÉ ES TAN IMPORTANTE? ¿QUÉ FUNCIÓN TIENE EN LA CONSTRUCCIÓN NACIONAL DE UN PUEBLO?

Erria

“Michael Billig nos habla de que la pugna entre procesos de construcción nacional se juega hoy entre la pugna de lo que él define como nacionalismo banal. Es decir, los discursos y las prácticas cotidianas, el deporte y sus discursos nacionales: la roja,

Alcaraz, o Jokin Altuna y Nahikari García... [...]

Negar a la inmensa mayoría de la población vasca presentarse como selección vasca de pelota vasca, es reflejo de la debilidad de la construcción nacional española. Esa pretensión grotesca de que lo vasco sea lo que España desea, refleja su falta de autoestima como nación. En el fondo, su íntima convicción de que en ausencia de la vasquitud no son suficientemente españoles.

Su exterior constitutivo es al mismo tiempo su interior constitutivo: ahí subyace la fantasmagoría de la cristianía vieja, de la limpieza de raza, del RH negativo... que solo existen en las cabezas del nacionalismo soberbio y acomplexado español”.

Mario Zubiaga. EH Bilduko senataria. Espainiar estatuko Senatuko hitzartzea [2025-05-07]

“Estar marcado con una identidad significa simplemente no tener poder de nombrar como universal tu propia posición identitaria”.

Paul Preciado. Yo soy el monstruo que os habla. Anagrama. [2020]

Una estrategia de doble filo: ¿instrumento de cohesión o instrumento de opresión?

Según el académico Michael Billig, el nacionalismo banal hace referencia a la forma en que el nacionalismo se manifiesta en la vida cotidiana. Ese nacionalismo se significa como banal, sutil, cotidiano. Es decir, el nacionalismo banal influye en conductas, costumbres, creencias y símbolos que refuerzan de forma sutil y rutinaria una determinada identidad nacional. En otras palabras, ese nacionalismo no promueve abiertamente un nacionalismo para garantizar la reproducción de una identidad nacional. Por el contrario, está presente sobre todo en la cultura popular, las costumbres, las tradiciones, los medios de comunicación y los usos cotidianos de la lengua y los símbolos.

Por tanto, el nacionalismo banal tiene una importancia capital en cualquier proyecto de construcción nacional, ya que contribuye a la construcción de la identidad nacional. En este sentido, obliga a las personas de una determinada sociedad a sentirse parte de una comunidad y a contribuir a compartir una identidad común.

En este sentido, el nacionalismo vacuo puede tomar dos direcciones. Por un lado, puede reforzar la cohesión social uniendo aún más a las personas que se sienten unidas de antemano y comparten valores e intereses comunes, aportando cohesión comunitaria e identitaria. El nacionalismo banal puede ser legítimo, siempre que no sea para subyugar la aspiración y la realidad de otras naciones.

Porque, en esta segunda dirección, el nacionalismo banal puede ser también un factor de tensión social y de conflicto. De hecho, en muchos casos el nacionalismo banal genera tensiones y conflictos en territorios donde, por ejemplo, hay varias comunidades nacionales y varios países. En ese caso, el nacionalismo banal del más fuerte se utiliza especialmente para excluir, erradicar, subyugar o justificar la violencia de forma consciente e inconsciente.

Por tanto, el nacionalismo banal es una forma sutil y cotidiana de expresar la identidad nacional, presente en muchos aspectos de la vida cotidiana y que puede tener consecuencias positivas o negativas para la sociedad. Podemos profundizar un poco más. Por un lado, tenemos a un nacionalismo banal de los opresores, y por otro, un nacionalismo banal inclusivo.



Características y ejemplos del nacionalismo banal opresivo

Prácticas y costumbres habituales: Esta es la forma de identificar a las personas con su nación, como el uso de la bandera, el himno o la celebración de días festivos. En el caso del nacionalismo banal de los opresores, es un nacionalismo manifiesto. La forma en que de vez en cuando una nación se identificaría con su nación de un modo nada banal, sino evidente. Su nacionalismo es patriota, no nacionalista, y natural; mientras que el nacionalismo de la nación negada (la vasca, catalana, gallega...), es identitaria, artificial y no natural.

Celebración de efemérides nacionales. 12 de octubre, “Día de la Hispanidad”. Es un día de celebración que se identifica como patriota, no nacionalista. Es el día de celebración de España. “El día de la constitución” es otro ejemplo. ¿De qué constitución hablamos exactamente? En ambos casos, estas celebraciones son la cara de la misma moneda, puesto que una construcción nacional exitosa requiere, a su vez, de mecanismos banales y evidentes. El 14 de Julio, día de la toma de la Bastilla o día nacional de Francia, es otro ejemplo.

Simbolismo omnipresente: Uso de símbolos nacionales en publicidad, ropa o decoración de interiores.

El uso de documentos oficiales y pertenencias nacionales. El DNI o cualquier documento oficial. Al rellenar cualquier documento oficial todo ciudadano perteneciente al estado español o al estado francés debe rellenar su identidad nacional con el término o bien español o francés. Es un claro ejemplo de nacionalismo banal.

Lenguaje nacionalista banal: uso de términos y expresiones que refuerzan la identidad nacional, como el uso de adjetivos derivados de nombres de países o regiones.

Usos de palabras que fijan la hegemonía territorial y simbólica una nación.

- “El norte”, para referirse al Euskal Herria sur, Asturias, Cantabria...
- Ese término presupone que la nación es española, que el centro es Madrid, y que partiendo de ese centro el norte es Euskal Herria sur.
- “La roja”. El término de la roja muestra y oculta a la vez una operación nacionalista banal que refleja dos cosas: que el término España no es aglutinador y debe ser evitado; y por otro lado, que existe una operación discursiva exitosa que evita lo anterior, aglutinando a gente en torno a un territorio, bandera y una nación (la española).

Adjetivación identitaria del otro, ocultamiento del propio. Si entramos en casi cualquier librería, podemos percibir una de las operaciones de nacionalismo banal por excelencia. Miremos a la clasificación de los libros: tenemos por un lado a la literatura vasca, la literatura francesa, literatura catalana... clasificadas como una unidad. Y, por otro lado, una clasificación sin adjetivos nacionales: “ciencia ficción”, “filosofía”, “literatura” ... El nacionalismo banal de carácter opresivo se distingue por adjetivar a las naciones oprimidas y quitar el adjetivo de su propia nación hegemónica, en este caso, la española. La nación hegemónica desaparece, se vuelve fantasmal; mientras que las naciones oprimidas son adjetivadas y mostradas como un todo.

Nacionalismo vasco y políticas identitarias. Todo discurso que pivota en torno a estas dos ideas es por excelencia parte de la operación discursiva hegemónica española de negar a lo vasco su carácter universal. Si cualquier proyecto que busca mejorar los derechos de los vascos en Euskal Herria, es identitario y nacionalista; porque todo proyecto (sea de izquierdas o derechas) que busca mejorar la vida de las gentes del territorio estatal español, ¿no son igualmente nacionalistas e identitarias? ¿Acaso buscan mejorar la vida de los habitantes de Portugal? ¿Por qué unos identitarios y otros no?

El egoísmo y privilegio nacionalista. El discurso nacionalista español muestra como egoísta y privilegiado cualquier proyecto nacional (vasco, catalán o gallego) que se base en un territorio que no sea el estatal español. ¿Por qué es egoísta uno y altruista y desinteresado el otro?

Identidad cultural: Forma en que las personas perciben y valoran su cultura, muchas veces en comparación con otras culturas. La cultura hegemónica entiende su cultura como una cultura abierta, rica, diversa, plural, heterogénea... En cambio, describe a las culturas “periféricas” con características cerradas, esencialistas y monolíticas...

Esencialización y la regionalización de lo vasco. “Los vascos no follan”, “las vascas son nobles”, “las y los vascos son tontos”... ¿y los españoles? Todo el discurso que se basa en esencializar a una parte de lo vasco, aparte de ser regionalista, es parte del discurso nacionalista banal opresivo de la ideología española dominante. Lo español necesita como su otro constitutivo externo e interno a identidades esencializadas. De ahí, como dice Zubiaga en la cita del principio, todas las teorías del RH vasco, la raza vasca, etc. son utilizadas solo en un nacionalismo español rancio y acomplexado.

Uso de productos nacionales: La preferencia por productos fabricados en el país o la celebración de productos y marcas nacionales también es nacionalismo banal. ¿Qué ejemplos se pueden poner? Hay productos nacionales y productos regionales. El flamenco es nacional y patrimonio universal de la cultura; en cambio, por ejemplo, la butifarra y las euskal dantzak, son identitarios, tradicionales y productos regionales.

La gastronomía nacional. También es un nacionalismo banal cómo las personas celebran y disfrutan de la comida tradicional de su país, o cómo se identifican con ella. En este caso, la reapropiación de la cocina vasca o catalana como parte de la cocina española es otra cara del nacionalismo banal opresivo español.

¿Qué hacer ante la construcción nacionalista banal hegemónica española y francesa? La conclusión es clara: debemos señalar, identificar y deconstruir aquellos discursos que configuran y predeterminan los afectos e identidades nacionales. A la vez que creamos y alimentamos un nacionalismo banal propio, basado en los valores de cohesión territorial, diversidad y respeto por las culturas, valores y visiones del mundo que conforman Euskal Herria.

Nacionalismo banal vasco. Un camino por explorar

Como decíamos al principio, no hay que demonizar al nacionalismo banal. Al ser un arma de doble filo, también juega un papel estratégico en la cohesión social y la identificación colectiva de una sociedad con un lenguaje, valores y culturas comunes.

Es por ello por lo que terminamos este artículo con la siguiente reflexión, que profundizaremos más adelante. ¿Cómo pensar el nacionalismo banal vasco? ¿Qué importancia tiene para la construcción nacional? Tenemos un campo de exploración estratégica y política en la cual profundizar que debemos pensar con calma.



KIROL HERRI BAT ASKATASUNERANTZ



Ane Urkiri
NAIZeko zuzendaria

Argazkiak: FOKU

“Euskal Selekzio ofizial bat dago jokoan Euskal Herrian, beste behin, Espainia edo Frantziarekin jokatzek eragin dezakeen auzolotsak bultzatuta. Ofizialtasuna delako bidea”

Euskal Herriaren independentziarako borrokak badauka eremu asko eta anitz, edozein borrokatan dauden ertz asko bezala. Erpin horietako bakoitzak badauka bere indargunea, bere balioa. Gogoan daukat Euskal Herri independente baterako nire borroka futbolaren bitartez hasi zela, selekzio propio baten aldeko borrokan, Euskal Selekzioen urteroko partida haietan.

30 urte igaro dira Esaiten (Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldea) sorreratik eta hamarkada bat honek bere ibilbideari bukaera eman zionetik. Aro bat markatu zuen, belaunaldi baten oroitzapena, borrokarako gosea. Euskal Selekzioaren partidetara joatea bazen borrokatzeko modu bat, Euskal Herriaren askapen prozesuan gotorleku bat. Bilboko kaleetako sugarra San Mamesera sartu eta zale eta jokalarien arteko nolabaiteko sintoniarekin Euskal Herria munduan kokatzen zen. Badira urte batzuk borroka hau stand by-ean dagoela, apalduta... ‘Gu ere bai’ dinamika sortu zen, sugarra hauspotu nahian, baina giroaren epeltasunak ez du lagun izan. Badira belaunaldi berrienak Euskal Selekzioaren inguruan sortzen zen sugar bero hori ezagutu ez dutenak. Kirolaren bitartez borrokarako gosez egon daitezkeenak baina gotorlekurik gabe daudenak, non topo egin ez dakitela.

Egoera politikoa ere nabarmen aldatu da, kalean ez dago lehengo konfrontazioa baina, hain justu, erakundeetan ordezkaritza zabalena dagoen une honetan, Euskal Selekzioaren aldeko sugarra ahulduta ikusten da, bai eta gure herriaren askapena kirolaren bitartez islatzeko gogo eta

nahia ere. Javier Landetaren agintaldia bukatu berri da Futboleko Federazioan, ofizialtasunaren aldeko imintziorik egin gabe. Azken lau urteetan, gizonezkoek partida bakarra jokatu dute, emakumezkoek bi, bata ateak itxita. Horiek kanpora begira eginiko keinu bakarrak eta barrura begirakoak, are gutxiago. Eta gainera, teoriarik, egoerarik onenean, 2022an Espainiako Kongresuan onartu zen kirol legearen arabera, EAJ-k azkar esan baitzuen «ofizialtasunaren bidea ireki» zuela, PSOErekin negoziatutako emendakinean. Bada, lau urtean, urratsak zero patatero.

Garrantzitsuak ez diren gauzen artean garrantzitsuena da futbola, esan zuen Arrigo Sacchik. Futbolaren negoziua eta albo kalte guztiak zuzitzeko inolako asmorik gabe, ez eta kuñadismoa lau haizetara hedatzeko intentzio txikiarik gabe, ez gendake gutxietsi behar kirolaren bitartez borroka egiteko hautua. Kirolak —eta jada pasa naiz orokortasunera— begirada ugari berreskuratzeko gaitasuna baitauka. Masak mugiarazten ditu eta gure herria zerbait bada, kirol herria da. Dantzatzen duen herria ez da inoiz hilko, ez eta kirola egiten duena ere, euskal nortasun baten adierazle.

Badauzkagu nazioartean erreferentetzat gaituzten elementuak —txirrindularitza, surfa, pilota, Jai Alai...— baina hauek hiltzen gabiltza, statu quoaren defentsan. Ahoa betetzen zaigu momentuko arrakastarekin, folklorea eroso daude agintariak, Basque, Winter Series eta dena delako adierekin. Noski, hauek nazioartean kokatzen laguntzen dizkigute, kirol diplomazia egiten, han hemenka



euskal nortasuna hedatzen, baina kanporako gehiegizko begirada eta folklorismoa banatzen duen lerroa oso fina da. Finegia.

Tourrak Euskal Herria nazioartean kokatu zuen, lau egunez –zenbaitek nahiago izan zuten EAEko etapak nabarmendu, Lapurdin etapa bat bukatu eta beste batean Zuberoatik ere igaroko zela alboratuta–, baina akabo. Xanpainaren arrakasta da hori, azkar puztu eta azkar jaitsi, bidean oinarria sendotu gabe eta jende asko galduta –gazte mailan lasterketak antolatzeke dauden zailtasunak, Bizkaia-Durango eta Sopelaren desagertpenak...–.

Proiektuak behar dira, oinarrian, harrobian, gero ere nazioarteko oihartzunak arrakasta izan dezan. Winter Seriesak hankak motz edukiko ditu baldin eta zesta-eskolak sustatzen ez badira; Olinpiar Jokoetako kostata irakurrik dugu «beste domina bat Euskal Herrira» urte osoan hauen lana ez bada errekonozitzen, babesten.

Oinarriko lan horrek erraztuko du Euskal Herriaren marko propio bat eraikitzen, lehiakorrak izaten eta barne mailan egin beharreko presioa egin ahal izateko. Statu quoa ezin da izan «ez digute utziko, alperrik da»; saiatu egin behar da, amore eman gabe, Espainia eta Frantziaren oposizio jarrerarekin eroso sentitu gabe, ezinezkotasun horretan iltzaturik.

Herriak behar du pizgarria, bai eta euskal nortasunaren harrotasun hori ere. Kirolaren bitartez, aldarrikapenez bete ditugu errepede

iskinak zein estadioak, «Made in Euskal Herria» ere esaten dugu. Euskal Selekzioaren aldeko uneoroko borrokak izan behar du statu quoa –bakoitzari dagokione gunean–; borroka, erori eta altxatzearen oinarritzko legea (Berri Txarrak parafraseatuz).

Pilotan zabaldu da ataska bat, eta barnean mugitu zait gazte garai haietan sentitzen nuen sugarra, kirolaren bitartez borrokarako grina. Saltsa dago eta saltsa horretan Euskal Selekzio ofizial bat dago jokoan, eragin egin delako, inmobilismoaz nazkatuta edo 2030eko Munduko txapelketan, Euskal Herrian, beste behin, Espainia edo Frantziarekin jokatzeko eragin dezakeen auzolotsak bultzatuta. Ofizialtasuna delako bidea.

APORIA

Ekonomikoa eta kulturala, materiala eta identitarioa, kulturala ala materiala, idealismoa eta biologismoa... erroko eztabaida beraren aldaera desberdinak dira. Garai batean, ideologiaren eta zientziaren arteko bereizketaz hitz egiten zen. Baina, ziur aski, azken aldian identitateen politikez edo politika identitarioez entzungo zenuen han-hemenka. Eta zer dira, bada, politika identitarioak? Ezkerreko pentsalari edo mugimendu batzuen arabera, identitate politikek pertsonen identitatea lehenesten dute: izan arraza identitatea, erlijiosoa, generozkoa, soziala edo kulturala. Politika “zabal” edo “orokorragoetan” enfasia jarri beharrean, beraien identitatean zentratzen dira. “Identitaristak” euren taldearen interesak lehenesten dituzte, talde sozial handi eta pluralagoen interesen gainetik. Beraz, identitate hori partekatzen duen taldearen interesen alde egiten dute, kezka “komun” eta “materialagoetan” zentratu ordez.

Nondik askatu korapiloa?

Zer esan nahi du hemen identitatearen terminoak? Esan nahi du, bazterrekoa, ez unibertsala, kulturala, kasik artifiziala den hori guztia. Zapalkuntza edo auzi konkretu batzuei soilik lotzen zaien adjektiboa izaten da: nazio borrokak, feminismoa, antiarrazakeria, LGTBIQ+ borrokak... Identitarioa “beste” da. Identitarioa ez dena, aldiz, materiala da, ukitu daiteke, garrantzitsua da, unibertsala eta ez artifiziala. Bektore horretan, bizitzako gauza “inportanteak” kokatzen dira, identitarioak ez diren auziak: ekonomia, klase auzia, identitariotzat hartzen ez diren identitateak...

Eztabaida filosofiko sakona dago atzean, garatu ezin dezakeguna. Aldiz, eztabaida filosofikoa baino gehiago, erabat politikoa ere bada. Paul B. Preciadok gogorarazi berri digun bezala (*Yo soy el monstruo que os habla*, 2024. Anagrama), identitate batez markatua egoteak norbere posizio propioa unibertsaltzat ezin izendatzea dakar. Irakur ditzagun honako bi esan hauek:

“Si alguien lo tergiversa diciendo que el factor económico es el único determinante, convertirá aquella tesis en una frase vacua, abstracta, absurda. La situación económica es la base, pero los diversos factores de la superestructura que sobre ella se levanta --las formas políticas de la lucha de clases y sus resultados, las Constituciones que, después de ganada una batalla, redacta la clase triunfante, etc., las formas jurídicas, e incluso los reflejos de todas estas luchas reales en el cerebro de los participantes, las teorías políticas, jurídicas, filosóficas, las ideas religiosas y el desarrollo ulterior de éstas hasta convertirlas en un sistema de dogmas-- ejercen también su influencia sobre el curso de las luchas históricas y determinan, predominantemente en muchos casos, su forma” (Engels, 1890)

«En un mundo completamente sexualizado y, a pesar de no haber recibido prohibiciones explícitas, las mujeres no llevan a cabo aquellas actividades que, consideran, no les corresponden. A las mujeres se las socializa como sirvientas, auxiliares, ayudantes, en una palabra, contingentes. La feminidad se crea mediante las características propias de las criadas, que son por definición subalternas. Como decían Gayatri Spivak y Frantz Fanon con respecto a los colonizados, este proceso implica violencia epistémica y autodesprecio. Este proceso material de producción de feminidad es opuesto a la creación de lo masculino que se crea mediante atributos de nobleza y honestidad, a saber, como modelo universal y esencial a seguir por el resto de la humanidad. Por ello no es ninguna casualidad que el 80 % de “directores y empleadores” sean hombres, mientras que en las categorías de “auxiliares y ayudantes” el 82 % son mujeres empleadas que, en muchos casos, reciben sueldos “complementarios”. En términos bourdieuanos lo masculino es una construcción semiótico-material que se hace, entre otras cosas, mediante capital simbólico. Al contrario, los cuerpos feminizados se producen mediante violencia simbólica: son subjetivaciones o identidades desarrolladas en estructuras materiales de producción que las socializan obligatoriamente en el autodesprecio, por lo que cogerán siempre y “por imperativo moral”, como dice Delphy, la peor parte del paté y del trabajo. Lo mismo ocurre con el trabajo doméstico y de cuidado que hacen las mujeres sin cobrar y que aparentemente también hacen “por su propia iniciativa» (Jule Goikoetxea, Por un feminismo materialista. Christine Delphy. Prologoa)

Kontraesanetik konplexutasunera. Errealitate soziala eraikuntza material eta ideologiko konplexu bat da

Aurreko bi esanak kontuan ditugula, hiru ideia garatu behar ditugu, auziari konplexutasuna eta argitasuna gehitze aldera.


1) Identitatea ez da gauza bat, erlazio bat baizik. Identitate bat beste batekiko oposizioan definitzen da: gizona emakumearekiko, espainola euskaldunarekiko, zuria beltzarekiko, zibilizatua barbaroarekiko, mendebaldarra arabiarrarekiko, eta abar. Bigarrenak lehena behar du bere existentzia justifikatzeko. Identitate batek urte luzez sedimentatutako borroka, indar erlazio eta ideologiaren errealitate material batean kokatzen zaitu. Ez da berdina munduan gizona, zuria, emakumea, arabiarra... izatea.

2) Ez dago min material edo kulturalik. Izan ere: desirak eta aspirazioak materialak ala identitarioak al dira? Haurdun egoteagatik edo “armairutik ateratzeagatik” lanetik kaleratu dituzte asko. Zer dago jatorrian, kausa materiala ala kulturala? Baxoa frantsesez egin behar izatea zer da, materiala ala kulturala? AEBetan ezin abortatzea zer da, kulturala ala materiala? Lan istripu batean zauritzea, enpresak edo patronalak neurri egokiak hartu ez dituelako, zer da, materiala ala kulturala? Feminismoaren denbora produktibo eta erreproduktiboaren bereizketaren kuestionamendua, zer da, kulturala ala materiala? Erantzuna, asmatuko zenuen bezala, honako hau da: biak dira!


3) Hirugarren eta azken ideia, beraz: zapalkuntza oro praktika diskurtsibo bat da. Adibidez, arrazakeria arrazan oinarritutako ideologia bat baino gehiago da. Ez da ez biologian, ez ideologia hutsean oinarritutako zerbait. Zapalkuntza sistema oso plastiko bat da, eta lekuan-lekuan forma desberdinak hartzen ditu, kultura, lekune geografikoa (ipar edo hego), erlijioa (“katolizismoa” ala “besteak”), hizkuntza, baita azal kolorea ere, modu eta gradu ezberdinetan nahasiz. Hori horrela, arrazakeriak klasea (baxua), (“gurea” ez den) kultura eta “arraz” (ez-zuria) nahasten dituen gutasunaren eta bestetasunaren ideologia bat artikulatzen du. Aurreko horrek jendartearen zati bat unibertsaltasunean eta normaltasunean kokatzen du, eta beste zati bat, bestetasunean. Alegia, Stuart Hall-ek azpimarratu bezala, arrazakeriaren (eta zapalkuntza kultural eta linguistikoen) oinarrian diferentziaren ideologia bat dago.


Beraz, errealitate sozialean ezin dira alde kulturala eta materiala bereizi, ez bada laborategiko analisi baterako. Errealitate sozialean ideiak, pentsatzeko eta sentitzeko moduak materialki eta ideologikoki sortzen dira gure egunerokoan; eta alderantziz, eguneroko indar harreman, produkzio erlazioek eta abarretatik mundu ikuskerak sortzen dira. Ideiak eta errealitate materiala, beraz, dialektikoki ulertu behar dira, politikoa denaren eta identitateak sortzen dituzten elementuen arteko elkarrekintza konplexu gisa. Zapalkuntza oro praktika diskurtsibo bat da; beraz, emantzipazio orok praktika diskurtsibo bat garatu behar du.

KRAK



05. EZIN DA
EZKUTATU





GOMENDIOAK



LILURAREN KONTRA. TRANTSIZIO GEOPOLITIKOAREN ARGI-ILUNAK

Martin Arbeo Sarriugarte
Iparrorratza bilduma. Txalaparta, 2024

Nork agintzen ote duen hemen? Galdera konplexu horri erantzuten saiatu da Martin Arbeo, Iparrorratza bildumako 9. liburuxkan. Zehazki, nazioarteko ordena berregituratzen ari den sasoi honetan, zer bide ditugun soluzio bakar dirudien gerrari ihes egiteko, horra auzia. Bakea aldarri, azterketa geopolitiko bat aurkeztu digu, non gauden eta honaino zerk ekarri gaituen ulertu, eta aurrerantzean ditugun erronkak argitu nahian.

Mundua aldatzen ari da, eta Euskal Herria ez dago prozesu horretatik salbu. Beraz, munduko eraldaketek eragingo digute. Bizitzen ari garen trantsizio geopolitikoak munduko boterearen birbanaketa sakona dakar; hori da faktorerik garrantzitsuenak, eta gatazka politiko-militarrak lehertzeko arriskua dakar.

Gaurdaino ezagutu dugun nazioarteko ordena hautsi egin da, ezeگونkortasuna da nagusi, eta indar militarren erabilera normaltzen ari da. Trantsizio geopolitikoak martxan da, hots, munduko boterea birbanatzeko fase sakona. Testuinguru horretan, gatazka eta tentsio geopolitikoak areagotu baino ez dira egingo.

Amerikako Estatu Batuen hegemonia gainbeheran da, eta orain arte izan duen nagusitasuna beste herrialde batzuek lehiatzen diote. Mendealdearen dekadentzia prozesu horri krisi ekologikoa batu zaio, gainera; krisi bikoitza krisi bakarrean.

Arriskua argia da: gerra bilaka daiteke gatazka horien guztien “soluzio”.

Txalapartak eta Iratzar Fundazioak elkarlanean argitaratzen duten Iparrorratza bildumako 9. liburuxka da hau.



AMAIERATIK HASI. EUSKAL FEMINISMOA, ALDAKETARAKO PARADIGMA

Naia Torrealda Mandaluniz
Iparrorratza bilduma. Txalaparta, 2025

Azken urteetan mugimendu feministetan eta feminismoen izenean gertatu diren banaketa, eztabaida eta zatiketen erroetara jotzen du liburuxka honek, Euskal Herriko begiradatik eta tokiko praktikan oinarrituta. Naia Torrealda Mandaluniz egilea urte luzez ibili da Euskal Herriko Bilgune Feministan, eta begirada kolektibo horrek emandako analisi eta jardunetatik abiatuta teorizatu du.

Iberdrolak bere dorrea morez argiztatu zuen Martxoaren 8 hura mugarri izan zen euskal feminismoan: mugimendu feministaren agortzea bera ikusi zuten askok ekintza hartan. Feminismoa balio multzo soil gisara ulertzetik harago, ordea, perspektiba zabalduz problematizatu behar da.

Bide horretan, euskal feminismoaren genealogia eta analisisirako begiradatik, liburuxka horren anbizioa da feminismoa askapenerako (bai nazional, bai sozial-kultural) paradigma gisa izendatzea.

Horretarako, Euskal Herrian feminismoetatik bizitzen ari garen korapiloen izen-abizenak jartzeaz gain, gogoeta pertsonal eta konpartituak biltzen ditu, teoria hutsean geratu gabe, jarduteko intuizio eta bide posible batzuk azalduz. Minak jaurtigai legez erabili beharrean, emozio kolektiboak politizatu eta guztiontzako askatzaileak izango diren proposamenak egitea beharrezkoa baita.

Txalapartak eta Iratzar fundazioak elkarlanean argitaratzen duten Iparrorratza bildumako 10. liburuxka da hau.



GUERRILLAS PARA LA VIDA

Beatriz Yarza
Testigantza. Txalaparta, 2025

Beatriz Yarza oñatiarrak El Salvadorreko gerrillan parte hartu zuen mediku gisa, 1983ko ekainetik 1992ko urtarrilera arte. Bakea iritsi zenean, herrialde horrekiko bere lotura ez zen hautsi: bake-akordioak sinatu ondoren El Salvadorren bizitzen jarraitu zuen, Gobernuarentzat lan egiten, harik eta Nayib Bukeleren agintaldian herrialdea utzi zuen arte. 2023an itzuli zen Euskal Herrira behin betiko, eta, sorterrira bueltan, atzera begiratzea eta bere bizipenak lehen aldiz partekatzea erabaki du.

Emaizta *Guerrillas* para la vida da, irudimen, borroka kolektibo eta gizatasunez beteriko memoriak. Liburu honetan, Aloñarekin [hala deitzen zioten gerrillan] Chalatenangoko mendietako kanpaina-ospitaleetara bidaiatuko dugu, non elkarlana, elkartasuna eta sormena ezinbestekoak ziren bizirauteko eta kideen bizitzak salbatzeko. Testigantza horrek, umore eta sentiberatasun handiz, gogorarazten digu une zailenetan ere bizitzak aurrera egiteko bidea aurki dezakeela.



OLATUAK SUTZEN DIRENEAN

Haritz Larrañaga
Eleberria. Txalaparta, 2025

Franco hil osteko urteetan haziak dira eleberri honetako protagonistak, Lizar eta Imanol anaiak. Etxe berera urte bateko aldearekin sortu arren, bide desberdinei heltzen diete: batak surfa hautatzen du bizimodutzat, eta besteak, borroka armatua. Beste modu honetan ere esan liteke: batak askatasun indibiduala bilatzen du itsasoan, eta besteak, askatasun kolektiboa xede, engaiamendu politikoari heltzen dio. Nolanahi den, bien bideak gurutzatu eginen dira han eta hemen, atalak txandakatzen direlarik.

Zarautzen kokatuak daude istorioaren gorabehera gehienak, zehazki, *Bermudako triangelua* edo *barrio txino* esaten zitzaion horretan, non kale istiluak, jonkiak eta haurrak nahas-mahas ibiltzen baitziren 1980ko urteetan. Horrela, bi protagonisten urratsen atzetik, garai eta paisaia baten kronika ere eginen du Haritz Larrañagak bere lehen nobelan, irakurle askori ezaguna eginen zaiona.



CAMBIUM

Zuzendariak: Maddi Barber eta Marina Lameiro.
Dokumentala. Nafarroa, 2024

Lakaben [Nafarroa] dagoen pinudi bati erreparatuz, naturaren zaintzari eta haren kontrako biolentziari buruzko hausnarketak bistaratzen ditu Maddi Barberrek eta Marina Lameirok egindako azken dokumentalak.

Zuhaitzen geruza zelularra, enborra eta sustraiak zeharkatzen dituen mintz pinudi bat moztea erabaki du laborantza soro zaharrak eta animalien larreak berreskuratzeko.

Bi zatitan egituratuta, filmak indarkeriaren eta lurra zaintzeko praktikek zeharkatzen duten lurralde baten aldaketa jasotzen du. Leku baten itxuraldatzea eta hainbat pertsonaren begietan leku hori bera nola ikusten eta bizitzen den ikusarazi dute zuzendariak 40 minutuko dokumental honetan.

60ko hamarkadan Artzibar haraneko herriak abandonatu ondoren, Francoren Gobernuak pinuak landatu zituen, larreetarako erabiltzen ziren soroetan, basoberritzeko eta basoak ustiatzeko Estatuko programa baten parte gisa. 50 urte baino gehiago geroago, Lakaben, 80ko hamarkadan birpopulatutako herri batean, pinuak moztu eta aziendarentzako belardiak berreskuratzea erabaki dute.

Datuak atzemateko teknologien eta irudiaren bidez, CAMBIUMek, inguruko biztanleekin batera, eraldatzen ari den lurralde bat aztertzen du.



NO OTHER LAND

Zuzendariak: Basel Adra, Hamdan Ballal, Yuval Abraham eta Rachel Szor.
Dokumentala. Palestina, 2024

Dokumental hau lau ekintzailez osatutako talde palestinar-israeldar batek sortu zuen, eskualdeko egungo gatazkaren erdian justiziaren aldeko borrokan erresistentzia-ekintza gisa. Hebron inguruko mendietako Masafer Yatta herrixketako palestinarren erresistentzia kontatzeaz gain, herritarrek kolonoen eta armada sionistaren setioari eusten nola dieten ere azaltzen dute, 95 minututan.

Basel Adra, Zisjordaniako Masafer Yattako ekintzaile gazte palestinarra, haurtzarotik ari da Israelgo agintariak bere komunitatea masiboki kanporatzearen aurka borrokan. Jaioterriaren erauztea dokumentatzen du, non gobernu israeldarrak zabalduko soldaduek pixkanaka etxeak eraisten eta bertako biztanleak kanporatzen dituzten.

Adrak Yuval kazetari israeldarra ezagutuko du, eta bere ahaleginetan lagunduko dio hark. Bien harremana, ordea, elkarren arteko desberdintasun izugarriek definitzen dute: Basel okupazio militarren pean bizi da, eta Yuval, berriz, aske eta murrizketarik gabe.




SEVERANCE

**Zuzendariak: Dan Erickson, Ben Stiller
eta Aoife McArdle.**
Drama. Amerikako Estatu Batuak, 2024

Severance zientzia fikziozko eta thriller psikologikoko telesail estatubatuar bat da, Dan Ericksonen sortua eta, batez ere, Ben Stillerrek ekoitzi eta zuzendua. Aktore nagusiak Adam Scott, Zach Cherry, Britt Lower, Tramell Tillman, Jen Tullock, Dichen Lachman, Michael Chernus, John Turturro, Christopher Walken, Patricia Arquette eta Sarah Bock dira.

Bilbeak Mark Scotten jarraipena egiten du. Lumon Industries bioteknologiako korporazio zorigaitzoko bateko talde bat zuzentzen du, eta “mozketa” prozedura medikoa erabiltzen du. Lumoneko langileek prozedura kirurgiko bat egin dute, oroitzapenak lan esparrutik eta bizitza pertsonaletik bereizteko.

Langileak lanean daudenean, innies deitzen zaie, eta ezin dute ezer gogoratu euren bizitzez, ezta kanpoko munduaz ere. Lanetik kanpo daudenean, outies deitzen zaie, eta ezin dute gogoratu lanean emandako denbora. Horren ondorioz, barrualdeak eta kanpoaldeak bi bizitza desberdin bizi dituzte, pertsona eta agenda desberdinekin. “Lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko orekaren” esperimentu ausart hau asaldatu egiten da Markek pixkanaka-pixkanaka zatiketaren bi aldeetako konspirazio sarea aurkitzen duenean, eta bere lanaren eta bere buruaren benetako izaera alderatzera behartuta egongo denean.



ADOLESCENCIA

Zuzendaria: Philip Barantini
Drama. Erresuma Batua, 2025

Jack Thornek eta Stephen Grahamek sortutako eta Philip Barantinik zuzendutako drama kriminaleko telesail britainiar bat da. Telesailaren ardatza eta protagonista Jamie Miller da, 13 urteko nerabea. Ikaskide bat hiltzea egotzita atxilotzen dute, baina istorioa ez da hilketa ebazteari buruzkoa, baizik eta arrazoia jakin nahi duten pertsonaien eta detektibeen garapen konplexuari buruzkoa.

Azpimarratzekoa da jorratzen dituen gaien pisua, hala nola maskulinitate toxikoa, *incel* komunitatea, misoginia, osasun mentala eta nerabeen gaineko presio soziala.

Telesaila teknikoki harrigarria bada ere (kapitulu bakoitza plano sekuentzia batean filmatuta dago), antzezpen lanak izugarriak dira. Thriller psikologikoaren eta dramaren artekotzat jo daiteke. Lau ataletan, gertaera horrek haren familian eta komunitatean duen eragina islatuko da.



«Munduan zehar uso zauritu bat dabil. Bandera gorriaren itzalak ematen duen aterpearen bila» Oier Zuñiga

